



NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

2006. urtea

78. zenbakia

Ostirala, ekainaren 30a

A U R K I B I D E E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.1. Foru Legeak eta Legegintzako Foru Dekretuak

- 7/2006 FORU LEGEA, ekainaren 20ko, Konsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa.
- 8/2006 FORU LEGEA, ekainaren 20ko, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa.

7170

7176

1.1.3. Foru Aginduak

- 186/2006 FORU AGINDUA, ekainaren 14ko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eman, 2005eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako ekitaldietaiko Sozietaeten gaineko Zergaren autolikidazioaren 220 ereduak onesten duena zergak bateratze-erregimenaren bidez ordaintzen dituzten taldeentzat, eta aitorpenak aurkezteko arauak ematen dituena.
- 187/2006 FORU AGINDUA, ekainaren 14ko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eman, 717, FR-2, S-91, 480, 04, 170, 180, 182, 184, 190, 193, F-50 eta 349 ereduen internet bidezko aurkezen telematikorako prozedura eta baldintza orokorrak ezartzen dituena.
- 188/2006 FORU AGINDUA, ekainaren 14ko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eman, zenbait aitorpen telematika bidez aurkeztu beharra arautzen duena.

7182

7190

7192

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- 237/2006 FORU AGINDUA, ekainaren 20ko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elkadura kontseilariak eman, Miren Eseverri Roda andrea Herrilurren Ataleko buru izendatzen duena, bitarte batezrako.

7193

1.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Eskaintza Publikoa, oposizioak eta lehiaketak

- 880/2006 EBAZPENA, maiatzaren 24ko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendarri kudeatzaileak eman, 1.1. oinarrian adierazten diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko larrialdietaiko mediku albokoentzako lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.

7193

1.3. BESTELAKO XEDAPENAK

1.3.2. Kontratazio administratiboa

- ERABAKIA, 2006ko ekainaren 26ko, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hartua, Nafarroako Parlamentuaren egoitzaren garbiketarako lehiaketa publikoaren akatsak zuzentzekoa.

7198

1.3.3. Nahitaezko Desjabetzpenak

- ERABAKIA, 2006ko ekainaren 12ko, Nafarroako Gobernuak hartua, Buñuelgo Udalaren Buñuelgo ingurabidea eraikitzeko proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena, nahitaezko desjabetzea egiteko.

7198

	ORRIALDEA		ORRIALDEA
1.3.4. Dirulaguntzak eta bekak		2.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK	
– 114/2006 EBAZPENA, maiatzaren 26ko, Garraio zuzendari nagusiak emana, 2006. urtean Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko deialdia onesten duena, autobus geltokietan markesinak eraiki eta instalatzeko inbertsioak zati batean finantzatzeko.	7198	2.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak	7205
1.3.6. Beste batzuk		2.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Eskaintza Publikoa, oposizioak eta lehiaketak	7205
– LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. Iragarkia.	7201	2.3. BESTELAKO XEDAPENAK	
II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA	7201	2.3.2. Kontratazioa, obrak eta zerbitzu publikoak	7211
2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK	7201	2.3.5. Beste batzuk	7213
		V. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	7213
		VI. PROZEDURA JUDIZIALAK	7216
		VIII. IRAGARKIAK	7218
		8.1. BESTELAKO IRAGARKI OFIZIALAK	7218
		8.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK	7246

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.1. Foru Legeak eta Legegintzako Foru Dekretuak

7/2006 FORU LEGEA, ekainaren 20ko, Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa.

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA naizen honek Aditzera ematen dut Nafarroako Parlamentuak honako hau onetsi duela
KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN DEFENTSARI BUZUKO FORU LEGEA
ZIOEN AZALPENA

1

Kontsumitzaileen eskubideen defentsa gure inguruko herrialdeetako legeetan sartzen ari da. Gaurko harreman ekonomikoetan nagusi dira merkataritzako teknika modernoak, merkatu libreaen aukerak baliatuz zerbitzuak banatu, saldu eta emateko egitura handiak, ekonomiaren globalizazio gero eta zabalagoa eta informazioaren gizartearen teknologia berrien garapena. Horrelako harremanetan kontsumitzailea da alderdi ahalena eta bestearen mende aurkitzen dena.

Horrela, dagoeneko zuzenbide konparatuaren osagai dira eta jasorik daude konstituzio modernoetan osasuna, segurtasuna eta bidezko interes ekonomiko eta sozialak babesteko eskubidea, kontsumitzaileen informazioako, hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidearekin batera, eta kontsumitzaileen erakundeen bitartez kontsultak egin eta ordezkaritza eta parte-hartzea izateko eskubidea ere bai.

Gure Konstituzioaren 51. artikuluak xedatzen duenez, botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatu behar dute, haien segurtasuna, osasuna eta bidezko interes ekonomikoak prozedura eraginkorren bidez babestuz; kontsumitzaile eta erabiltzaileen informazioa eta hezkuntza sustatu behar dituzte, haien erakundeak bultzatu behar dituzte eta entzun egin behar diente kontsumitzaile eta erabiltzaileak ukitzen ahal dituzten auzietan, legeak ezartzen duen moduan.

Konstituzioaren agindua betez, Gorte Nagusiek uztailaren 19ko 26/1984 Legea onetsi zuten, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorra. Hauek dira lege horren funtsezko helburuak:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko prozedura era-ginkorrik ezartzea, oinarri sendo eta zuzenen gainean.

2. Arlo honetan elkartea mugimenduaren garapen ahalik onena lortzeko lege esparru egokia izatea.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa eratzen duten principio, irizpide, betebehar eta eskubideak deklaratzeara. Botere publikoek, beren eskumenen eremuan, horiek kontuan hartu beharko dituzte aurrerantzean arauak egin edo garatzen dituztenean, Konstituzio Auzitegiak finkatutako doktrinaren esparruan.

Beste alde batetik, Europako Erkidegoaren Sorrerako Zuzenbidean kontsumitzaileen babesia Europako Agiri Bakunak jaso zuen lehenbiziko aldiz. Haren 100.A.3 artikuluak dioenez, kontsumitzailearen babesaren arloan estatu kideen legeriak hurbiltze aldera Batzordeak egiten zituen proposamenak babes maila handian oinarritu behar ziren.

Geroago, bai Maastrichteko Tratatuaren 129.A artikulan bai aurreko testu berria eman zion Amsterdamgo Tratatuaren 153. artikulan, Erkidegoari neurriak hartzeko agindu zitzaien, kontsumitzaileen babes maila handia lortzen laguntzeko. Horrez gainera estatu kideek babes neurri zorrotzagoak mantentzen eta hartzan ahal dituzte, betiere Tratatuarekin bateragarriak badira eta Batzordeari jakinarazten bazaizkio.

Azkenik, Europako Konstituzioa egiteko Tratatuak 98. artikulan dioenez, Batasunaren politiketan kontsumitzaileen babes maila handia bermatuko da. Tratatu horrek 2006ko azaroaren 1ean hartuko du indarra, estatu sinatzaileek berrespetu tresnak aurkezten baldin baditzute. Halaber, 6. atalean ("Kontsumitzaileen babesea") dagoen 235. artikuluak adierazten duenez, kontsumitzaileen interesak sustatu eta babes maila handia bermatze aldera, Batasunak laguntza emanen du halien osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak babestearren eta informaziozako, hezkuntzarako eta beren interesen aldeko erakundeetan elkarlanean dute eskubidea sustatzearren. Horretarako hartzan diren neurriak, ordea, ez dira oztopo izanen estatu kide bakoitzak babes zabalgoko xedapenak manten edo onetsi ditzan. Betiere horiek Konstituzioarekin bateragarriak izan behar dute, eta Batzordeari jakinarazi behar zaizkio.

Aurrekoari gehitu behar zaio Europan kontsumitzaileak babesteko egin diren arau guztien multzoa (Erkidegoko Zuzenbide Eratorria). Oinarritzko alderdietan behintzat gune ekonomiko komuna lortuko bada Europako Zuzenbide Pribatuak behar duen batasuna lortzeko bideetako bat da. Alabaina, harmonizatzeko prozesu horretan ez da egin kontsumitzaileen babesari buruzko han-hemenkako xedapen zehatzak onetsi besterik.

Nafarroako Foru Komunitateak arlo honetan duen eskumenari dagokionez, Nafarroako foru eraentza birrezzari eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluak Foru Komunitateari eskumen osoa ematen dio kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloan, ezertan eragotzi gabe prezioei buruzko politika, Estatuko lurraldleen barneko ondasunen joan-etorri libre eta lehiaren defentsari buruzko legeria.

3

Konstituzioaren agindua betetzeko eta Nafarroari emandako eskumenak eraginkortasunez baliatzeko, kontsumitzaileak defendatzeko tresna juridikoa ezarri behar da Foru Komunitatean, Nafarroako gizartearen eskakizun eta eskariei egokitua. Foru lege bat onetsi behar da horretarako, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteko esparru juridiko egokia ezarriko duena eta haien babeste aldera botere publikoek abian jarri behar dituzten ekintzak sistematizatuko dituena.

Hona hemen, bada, foru lege honen helburu aipagarrienak:

a) Egoera txarragoan, menpekotasunean, defentsarik gabe edo babesik gabe dauden kolektiboak lehentasunez babestea, bai eta kontsumitzailearen eskubideak ere, guztiak erabil ohi dituzten produktu edo zerbitzu arruntei dagokienez.

b) Osasun eta segurtasun gaietan prebentzio ekintza sustatzea, merkatua kontrolatzeko kanpainak eginez, foru lege honetan ezarritako kautelazko neurriak hartuz, behar denean, eta enpresaburu zein profesionalei kasu bakoitzean kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko behar den ardura eskatzetan: arrisku onargarriei buruz behar bezalako informazioa eman dezatela, eta ez dezatela merkaturatu arrisku onartezinak dituen produktu edo zerbitzurik, osasunaren eta segurtasunaren babes maila handiari eusteko.

c) Kontsumitzaleen interes ekonomiko eta sozialen babesari loturik dauden eskubide batzuen bilduma egitea. Gehienak lehendik araututa daude beste arau juridiko batzuen bidez, eta hainen artean honakoak azpimarratu behar dira: aurretiaz idatzizko aurrekontua eskatzeko eskubidea orokortzea, ikusgai dauden prezioen bidez kontsumitzaleak eragiketaren prezio osoa jakiterik ez duenean; era berearen, aurretiaz egindako gordailuaren idatzizko gordekin orokortzea, itundutako eragiketa burutu baino lehen ondasunen gordailua egiten denean; kontsumitzaleari eragiketaren egiaztagiria (faktura edo tiketa) atalez atal behar bezala banakatuta eman beharra, eta, azkenik, bezeroak onarteko eskubidearen erreserba, jendearentzat irekita dauden establezimenduetan sartzeraoa kontsumitzaleen arteko bereizkeriarik izan ez dadin, eta halaber kontsumitzaleen arteko edozein bereizkeriaren debekua, eskatutako ondasunak eskuratu edo zerbitzuak jasotzerakoan.

d) Botere publikoek kontsumitzaleen informazioa, hezkuntza eta prestakuntza sustatu eta bultzatzea hainbat modutan, besteak beste kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoen bitarte; hezkuntza sisteman eduki egokiak sartea ikasleek kontsumoaren arloko prestakuntza jaso dezaten; horretarako material didaktikoa prestatu eta argitaratu dadin sustatzea; kontsumitzaleen eskubideen berri zabaltzea komunikabideetan eta informazio kanpainetan.

e) Kontsumoko kooperatibak kontsumitzale elkartea gisa onartzea, baldin eta kideei kontsumoaren gaineko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza ematea sozietatearen xedeetakoan bada eta sozietatearen ekitaldi bakoitzeko soberakin garbien 100eko 10, gutxienez, helburu hori duen funts soziala eratzeko erabiltzen bada.

f) Kontsumitzale elkarteei eskubide hauak onartzea: kontsultantentzunak izateko eskubidea, kontsumo gaietan ematen diren xedapen orokorrak prestatzeko prozeduraren parte hartzeko eskubidea eta beren interesen ordezkaritzarako eskubidea. Halaber, kontsumitzaleen elkartek sustatu eta hainen erakundeen eta enpresaburu eta profesionalen erakundeen arteko elkarrikzeta bultzatzea Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bitartez.

g) Botere publikoek biltartekotza eta adiskidetzea sustatzea eta erakundeek bultzada eta babesia ematea kontsumoko arbitraje sistemari, kontsumitzaleei eragiten dieten auziak auzitegietatik kanpo ebatteko bide edo mekanismoak baitira.

h) Kontsumo ikuskatzaitzari eskumen zabalak ematea produktu, ondasun eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzeko, kontsumitzalearen babesia helburu; horrek ez du eragotziko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barnean kontsumo gaietan eragina duten beste ikuskapen organo batzuen eskumena, ez eta toki entitateek arlo honetan dituzten eskumenak ere; hori guztia ikuskapen organo guztien arteko koordinazio eta lankidetzaren markoa.

i) Beste alde batetik, eta kautelazko neurrien inguruko berrikuntza gisa, zilegi izanen da halako neurriak hartzea ez bakarrik zantzua argia daudenean kontsumitzaleen osasuna edo segurtasuna arriskuan daudela uste izateko, baizik eta baita hainen interes bidezkoen kontrako urratze larriak egiten direnean ere.

j) Azkenik, zehapen prozeduraren eremuko berrikuntza gisa, arau-hauste moten zerrenda nahiko luzea egin nahi izan da Konstituzioko tipikotasun printzipioa bete dadin; zehapenen zenbatekoa arauz kontrako portaeraren zuzenketaren arabera ponderatzea aurreikusi da, eta horrenbestez zehapen prozeduraren, interes publikoa (araua bete dadin) begiratzeaz gainera, zeharbidez kontsumitzale salatzalearen interes pribatua babestuko da, mekanismo hori arau-hauslearentzat zuzenketarako pizgarri izanen baita; halaber zenbait zehapen osagarri edo zehapenen ondorio osagarri ezarri dira, eta horien artean nabarmenekoak dira honakoak: enpresa aldi baterako ixtea arau-hauste oso larria egiten denean, arau-hausleari bidegabeko publizitatea zuzentzeko agindu ahal izatea, laguntza ofizialak ezabatu, kendu, eten edo ukatu edo Nafarroako administrazio publikoekin kontratuak egiteko gaitasuna kendu ahal izatea.

4

Foru legeak honako egitura du: lau titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. I. tituluan foru legearen xedea, aplikazio eremu subjektiboa eta aplikazio lurraldea azaltzen dira. II. tituluan zerrendatzetan dira kontsumitzalea eta erabiltzaileei aitortzen zaizkien eskubideak. III. tituluan kontsumitzaleen eskubideak babesteko mekanismoa jaso dira, hala nola produktu, ondasun eta zerbitzuen ikuskapena eta kontrola, kautela edo prebentziozko neurriak eta gatazkak auzitegietatik kanpo ebatteko bideak, esate baterako kontsumoko arbitrajea, biltartekotza eta adiskidetzea. Azkenik, IV. tituluak zehatzeko ahalmena jorratzen du. Estatuko oinarrizko legerian ezarrita dauden eta Konstituzio Auzitegiaren doktrinak zehaztu dituen printzipioen arabera erabili behar da ahalmen hori, erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituz eta foru lege honetan ezarritako arau-hauste motak, sailkapen eta mailakapen irizpideak, zehapenak eta

preskripzio epeak aplikatuz. Betiere ordezko gisa aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. titulua, administrazio hori denean zehapen ahalmena erabiltzen ari dena.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean kontsumitzale eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea, Espainiako Konstituzioaren 51. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan dagoen agindua betetzeko eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluak Foru Komunitateari ematen dion eskumena erabiliz.

2. artikulua. Kontsumitzale eta erabiltzaile kontzeptua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, kontsumitzale eta erabiltzaileak dira ondasun, produktu edo zerbitzuak eskaintzen zaizkien pertsona fisiko edo juridikoak, eta halakoak azken hartzale gisa erosi, erabili edo jasotzen dituztenak norbanakoaren, familien nahiz taldeen erabilera edo kontsumorako, baldin eta hiek eskaintzen edo eskueran jartzen dituena enpresaburu edo profesionala bada, berrin dela pribatua nahiz publikoa den, nahiz eta, azken kasu horretan, bere enpresa edo lanbide jarduera zuzenbide pribatuko araubideari loturik egin beharko duen.

2. Ez dira kontsumitzale eta erabiltzailetzat hartuko enpresa edo lanbide jarduera baten barnean ondasun, produktu eta zerbitzuak erosen, erabiltzen edo jasotzen dituztenak.

3. Foru lege honen ondorioetarako, bertan kontsumitzaleak aipatzenten direnean kontsumitzalea eta erabiltzaileez ari dela ulertuko da.

3. artikulua. Babes bereziako kasuak.

1. Inguruabar bereziengatik egoera txarragoan, menpekotasunean, defentsarik gabe edo babesik gabe dauden taldeetako kontsumitzaleak, hala nola adingabeak, zaharrak, ezinduak, etorkinak eta beste batzuk, babes bereziaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen berariazko jarduketen xede izanen dira, foru lege honetan xedatutakoaren esparruan.

2. Halaber, kontsumitzaleen eskubideei babes berezia emanen zaien guztiak erabili ohi dituzten produktu edo zerbitzu arruntekin zuzeneko lotura dutenean.

4. artikulua. Nafarroako Administrazio publikoen eskumenak.

1. Nafarroako Gobernuaren eginkizunak dira Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoaren arloko politikaren planifikazio orokorra egitea eta foru lege hau garatzeko erregelamenduak onestea, baita toki entitateekin batera aritzeko programak eta haiekin koordinatzeko mekanismoak sustatzea ere.

2. Toki entitateei dagokie indarra duen legeriak kontsumitzaleen defentsarako ematen dizkien eskumenak erabiltzea.

3. Nafarroako Gobernuak neurri egokiak hartuko ditu administrazio publikoek eta kontsumoaren arloan eskumenak dituzten erakundeek elkarrekin koordinaturik eta lankidetzan jardun dezaten.

II. TITULUA

Kontsumitzaleen eskubideak

I. KAPITULUA

Oinarrizko eskubideak eta printzipio orokorrak

5. artikulua. Kontsumitzaleen oinarrizko eskubideak.

Hauak dira kontsumitzaleen oinarrizko eskubideak:

a) Osasunaren eta segurtasunaren babesia.

b) Haien interes ekonomiko eta sozial zilegiaren babesia.

c) Kontsumo gaietako informazioa, hezkuntza eta prestakuntza.

d) Ordezkaritza, kontsultarako hizpidea eta parte-hartzea, legez eratutako kontsumitzale erakundeen bitartez.

e) Kalte edo galera ordaina edo egiazko konponketa.

6. artikulua. Eskubideen ukaezintasuna eta baldintza hobearen printzipioa.

1. Foru lege honetan eta arau osagarriaren onartutako eskubideak erabiltzeari aurretiaz uko egiten bazaio edo eskubide horiek ez aplikatzeko ituna egiten bada, uko edo ituna erabat deuseza izanen da.

2. Foru lege honen edo beraren arau osagarriren aurka iruzur egiteak ez du eragotziko saihestu nahi den araua aplikatzea, legeria zibilaren arabera.

3. Foru lege honetan xedatutako eta beste edozein arau zibil, merkataritzako edo administrazioko arautan xedatutako bat ez datozean, kontsumitzalearentzat hobeak den baldintzaren printzipioari eutsiko zaio.

II. KAPITULUA

Osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea

7. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Kontsumitzale eta erabiltzaileentzat diren produktu, ondasun eta zerbitzuek ez dute haien osasun edo segurtasunerako arriskurik izanen, arrunta eta aurreikustekoa den erabilera ohikoak edo errege-lamenduz onargarriak direnak salbu. Horretarako kontuan hartuko dira haien ezaugarriak eta erabilera, beste producto, ondasun edo zerbitzu batzuekin batera izan ditzaketen eraginak, aurkezteko era, publizitatea eta etiketa, eta haien xede diren kontsumitzale eta erabiltzaileen ezaugarriak. Betiere pertsosun osasunaren eta segurtasunaren babes maila altuari eutsiko zaio.

2. Dena dela, baldin eta, producto, ondasun eta zerbitzuen izaeragatik, iraupenagatik eta hartzaleen ezaugarriengatik, arriskuak ez badira abisu egokirik gabe berehala sumatzeko modukoak eta producto, ondasun eta zerbitzuen erabilera edo kontsumo arrunt edo aurreikusgarriari lotuak, aurretiaz argi jakinarazi beharko zaizkie kontsumitzaleei, baliabide egokiak erabiliz.

8. artikulua. Merkatua zaindu eta kontrolatzeko jarduketak.

1. Botere publikoek, beren eskumeneko eremuan, kontsumitzaleen osasuna eta segurtasuna babesteko arauak behar bezala aplika daitezen begiratuko dute. Horretarako, merkatua modu egokian zaindu eta kontrolatuko dute eta jarduketa hauek eginen dituzte, bestekat Beste:

a) Kontrolak egin, ondasun, producto eta zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea bermatzeko.

b) Laginak hartu, haietan saikuntza eta analisiak egiteko.

c) Producto, ondasun eta zerbitzu seguruak merkaturatuko direla bermatzeko beharrizkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu.

d) Ekoizle, banatzaile eta merkatarieei behar diren argibideak esku.

2. Kontsumitzaleen osasun edo segurtasunerako arriskuak dituzten producto, ondasun edo zerbitzuak merkatuan izanez gero, botere publikoek haien atzemateko neurri egokiak antolatuko dituzte eta kautela edo prebentziozko neurri aproposak hartuko dituzte foru lege honen 32., 33. eta 34. artikuluaren ezarritakoari jarraituz. Horrek ez du eragotziko kontsumitzaleak jakinaren gainean jartzea.

9. artikulua. Zenbait ondasun eta zerbitzuri buruzko jarduketa bereziak.

1. Erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorreko producto eta zerbitzutzat erregelamenduz jotzen direnei zainketa eta kontrol berezia ezarriko zaie.

2. Nafarroako Gobernuak, bere eskumen eremuan, aurreko lerro-kadan aipatutako ondasun, producto eta zerbitzuei buruzko ikuskapen, analisi eta informazio kanpainak erregulartasunez egin daitezen sustatuko du.

10. artikulua. Profesionalen ardura.

1. Produktuak prestatu, ekoitzi, banatu eta saltzen dituzten eta zerbitzuak ematen dituzten enpresaburu edo profesionalek behar bezalako arduraz jardun beharko dute kontsumitzaleen osasuna eta segurtasuna babesteko.

2. Horretarako, nork bere jardueren esparruan argiro jakinarazi beharko ditzu producto, ondasun eta zerbitzuen arriskuak, eta arrisku horiek saihesteak xede duten jarduketetan lagundu beharko du.

3. Bereziki, produktuak merkaturatzeari uko egin beharko diote kontsumitzaleen osasunaren edo segurtasunaren kontrako arriskuak dituztela jakinez gero edo jakin beharra izanez gero, non eta ez diren ohiko arriskuak edo erregelamenduz onargarriak, foru lege honen 7.1 artikulan ezarritakoarekin bat.

III. KAPITULUA

Interes ekonomiko eta sozialen babeserako eskubidea

11. artikulua. Kontsumitzaleen eskubide eta interesen babesea.

Botere publikoek, beren eskumen eremuan, kontsumitzale eta erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozial bidezkoak babestuko dituzte, foru lege honetan, kontsumitzaleen defentsari buruzko legeria orokrrean eta gainerako arau aplikagarriean ezarritako eran, eta horretarako neurri egokiak hartuko dituzte, ondokoak bermatze aldera:

a) Ondasunen pisuaren eta neurrien zehaztasuna eta zerbitzu-emeate egokia.

b) Kontsumitzaleei eskaintzen zaizkien ondasun eta zerbitzuek kalitate arauak betetzea.

c) Eskaintzen diren ondasun eta zerbitzuen prezio zehatz eta osoak, haien gaineko zerga edo zamak barne, jendaurrean ikusgai jartzea, erraz ikusteko eta nahastu gabe identifikatzeko moduan.

d) Erreklamazio, berme, uko edo itzulketei buruz kontsumitzaleei eskaini edo agintzen zaien araubidea edo haietan hitzartzen dena legeria indardunarekin bat etortzea erabat.

e) Ondasun iraunkorrik kontratatzetan direnean, legez ezarritako gutxieneko epea iragan arte kontsumitzaleek zerbitzu tekniko egokia eta ordezko piezak eskueran izateko duten eskubidea eraginkorra izan dadila eta bete dadila.

f) Kontsumitzaleari merkataritza-transakzioaren egiaztagiria, fatura edo ordezko agiria (tiketa) ematea, behar bezala banakatua, hala behar deanean, eta agiri horren gutxieneko edukia araudi indardunear xedatutakoia izatea.

g) Kontsumitzaleak eskatuz gero, idatzizko aurrekontua ematea eragiketa hasi aurretik, artikulu honetako c) idatz-zatian xedatutakoari jarraituz ikusgai jartzen diren prezioen bidez kontsumitzaleak eragiketaren prezio osoa jakiterik ez duenean. Aurrekontuan beraren indarraldia adierazi beharko da nahitaez.

Kontsumitzaleak ez badu aurrekontua onartzen, aurrekontua egi-teko zenbateko ordaindu beharko du, ikusgai dauden tarifen arabera.

h) Gordekin ematea, hitzartutako eragiketa burutu dadin kontsumitzaleak ondasunen gordailua egin behar duenean. Gordekin ondokoak agertuko dira gutxienet: gordailua egin duen erabiltzailearen eta establezimendu gordailuzainaren identifikazioa, objektua, egin beharreko eragiketa, gordailuaren data eta aurreikusitako entrega-data.

i) Ondasun eta zerbitzuen sorkuntza, banaketa, informazioa, publizitatea, sustapena, eskaintza eta salmenta direla-eta indarra duten xedapen eraginkortasunez aplikatzea eta zorrozt betetzea.

j) Erreklamazio orriak edukitza eta eskatzen dituzten kontsumitzaleei ematea, erregelamendu bidez ezarritakoarekin bat.

12. artikulua. Kontratuen edukia eta kontratatzeko baldintza orokrak.

1. Foru Komunitateko botere publikoek, beren eskumenen esparruan, kontratuen edukia legeria indardunarekin bat etortzen dela begiratuko dute eta hori bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte. Zehazki, kontsumitzale eta enpresaburuen elkartekin eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin lankidetzan, bideak jarriko dituzte trafiko juridikoan testu argi, zehatz, garden eta ulerterrazu duten kontratacio baldintza orokorrak erabil daitezen.

2. Halaber, onusteari eta prestazioen oreka bidezkoari aurka egiten dien edozein klausula kentzeko eskatuko dute, indarra duen legeiaren bat.

3. Babes hori, lehentasunez, erabilera arrunta, ohiko eta orokorra duten producto, ondasun eta zerbitzuei dagozkien kontratuen gainekoa izanen da.

13. artikulua. Publizitate jarduera.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu publizitate jarduerak nahikotasun, objektibotasun, egiazkotasun eta zinezkotasun printzipioa bete ditzan, eta kontsumitzaleen interes bidezkoie kalte egiten dien publizitate-agerpen iruzurrekoak edo legez kanpokoak jazarriko ditu betiere.

14. artikulua. Onartzeko eskubidearen erreserba eta bereizkeriarik ezaren printzipioa.

1. Jendearentzat irekiak izan eta bezeroak onartzeko eskubidea erreserbatua duten establezimenduetan, ongi ikusten den kartela jarri beharko da sarreran, eskubide hori erabiltzeko ezarritako baldintzak aditzera emateko. Baldintza horiek ezin izanen dira zehaztagabeak, bereizkeriazkoak, arbitrioak edo establezimenduaren izaera eta jarduerarekin kontraesankorrak izan.

2. Eskatzen diren ondasunak saldo edo zerbitzuak ematerakoan ezin izanen da kontsumitzaleen arteko bereizkeriarik egin.

IV. KAPITULUA

Kontsumoaren arloko informazioarako, hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidea

15. artikulua. Informazioa izateko eskubidea.

1. Kontsumitzale eta erabiltzaileek eskubidea dute informazio egiazkoa, eraginkorra eta nahikoa jasotzeko kontratacio baldintzei buruz eta eskaintzen zaizkien ondasun edo zerbitzuen funtszeko edo garrantzizko ezaugarriei buruz, horiek jakinaren gainean aukeratu eta segurtasunetan eta nahi duten moduan erabili ahal izateko.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraituz kontratuaren baldintza juridiko eta ekonomikoei buruz ematen den informazioa behar adinakoa ez denean, onustearen printzipioaren arabera integratuko da kontratuak.

3. Ondasun edo zerbitzuak sortu, ekoitzi, merkaturatu, banatu eta saltzearen ardura duten subjektuei eskatu ahal izanen zaie informazioa emateko betebeharra betetzea.

16. artikulua. Kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoak.

1. Nafarroako Gobernuak kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoen sorrera bultzatu eta sustatuko du, titulartasun publikokoak izan nahiz kontsumitzalee elkarteen menpekoak.

2. Kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoek ezin izanen dute producto edo zerbitzuen inolako publizitaterik egin.

3. Nafarroako Gobernuak, kontsumo gaietan eskumena duen departamentuaren bidez, kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoan lana koordinatuko du eta haien ezarpenerako eta funtzionamendurako lagunza tekniko eta ekonomikoa emanen du, erregelamenduz zehazten den moduan.

17. artikulua. Kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoan egin-kizunak.

Honakoak dira kontsumitzaleei argibideak emateko bulegoan oinarrizko eginkizunak:

a) Kontsumitzaleei beren eskubideak modu egokian erabiltzeko argibideak, lagunza eta orientazioa eskaintza.

b) Kontsumitzaleen salaketa eta erreklamazioak jasotzea, erregratzea eta jaso izana adieraztea, hainek entitate edo erakunde ego-kiei igortza, eta haien jarraipena egitea, interesatuei behar bezalako informazioa emateko.

c) Alderdi interesatuek eskatuz gero, irizpena edo arbitrajea eska-tea organo eskudunari, eta eskabidearekin batera auziari buruzko informazio osoa eta zehatzera ematea.

d) Gatazketa borondatzeako bitartekotzarako bidea izatea.

e) Kontsumitzaleek agintari edo erakundeen eskumeneko zerbitzuei buruz egiten dituzten eskaerak kasuan kasuko agintari edo era-kundeari helaraztea.

f) Kontsumoaren arloko elkartegintza, arbitraje sistemaren erabili-lera eta bitartekotza sustatzea gatazkak ebazteko bide gisa.

g) Kontsumitzaleen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio kanpainak egitea, eta haien prestakuntza hobetzeko programak garatzea.

18. artikulua. Hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidea.

1. Kontsumitzaleek kontsumoaren arloko hezkuntzarako eta pres-takuntzarako eskubidea dute, beren eskubide eta betebeharra eta horiek behar bezala erabili ahal izateko bideak ezagut ditzaten.

2. Halaber, kontsumitzaleen hezkuntzak eta prestakuntzak helburu hauek izanen dituzte:

a) Ondasunak kontsumitu eta zerbitzuak erabiltzerakoan zentzuz jokatzea.

b) Produktuen kontsumoak eta zerbitzuen erabilera ekar ditzaten arriskuei aurrea hartzea.

c) Kontsumoa baliabide naturalen zentzuzko erabilera egokitzea.

d) Kontsumitzale eta erabiltzaileen elkarrekin sustatzea, haien es-kubideak defendatzeko bitarteko eraginkorrik baitira.

3. Aurreko zenbakietan aipatutako helburua eta xedeak lortze al-dera, botere publikoek honako jarduketak eginen dituzte:

a) Ikerketen kontsumo gaiei buruzko prestakuntza emateko eduki egokiak sartzea hezkuntza sisteman.

b) Kontsumitzale eta erabiltzaileen hezkuntza eta prestakuntzarako material didaktiko lagungarriak presta eta argitara daitezen sus-tatza.

c) Hedabideen eta informazio kanpainen bidez argibide eta orienta-bideak ematea. Horretan lankide izaten ahalko dira kontsumitzale eta erabiltzaileen elkarrekin.

19. artikulua. Kontsumoaren arloko lanbide prestakuntza.

Botere publikoek kontsumoaren arloan informazio, hezkuntza, pres-takuntza, ikuskapen eta kalitate-kontrol lanak egiten dituzten langileen etengabeko prestakuntza sustatuko dute.

V. KAPITULUA

Ordezkartzarako, konsultarako eta parte-hartzerako eskubidea

20. artikulua. Eskubide horien erabilera.

1. Legez eratutako kontsumitzale erakunde eta elkarrekin bitarteko egokiak dira kontsumitzaleen interesak defendatzeko, eta kontsumitzaleek haien bidez erabiliko dituzte kontsultarako hizpidea izateko es-kubidea, kontsumoaren arloan ematen diren xedapen orokorrak prestatzeko prozeduraren parte hartzeko eskubidea eta beren interesen ordez-kartzarako eskubidea.

2. Botere publikoek kontsumitzaleen elkartegintza sustatuko dute eta haien erakundeen eta enpresaburu eta profesionalen erakundeen arteko elkarriketa sustatuko dute Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bidez.

21. artikulua. Kontsumitzaleen elkarrekin.

1. Legez eratutako kontsumitzale elkarrekin kontsumitzaleen intere-sak defendatzea izanen dute helburu. Haien onura publikoa deklaratu ahal izanen da eta onesten diren laguntza publikoak eman ahal izanen zaizkie beren xedeak betetzeko. Halaber, kontsumoko arbitraje sis-teman parte hartu ahal izanen dute.

2. Kontsumitzaleen elkarrekin kontsumoaren arloan ematen diren xedapen orokorrak prestatzeko prozeduraren parte hartu ahal izanen dute

Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bidez, foru lege honen 25.2 artikuluan adierazitako eran.

3. Foru lege honen ondorioetarako, kontsumoko kooperatibak ere kontsumitzale eta erabiltzaileen elkartetzat hartuko dira, berariaz arau-tzen dituen legeraren arabera eratzen badira eta honako baldintzak betetzen baditzute:

a) Baskideei kontsumoari buruzko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza emateko helburua estatutuetan jasotzea, sozietaatearen xedearen atal gisa.

b) Sozietaatearen funts bat eratzea a) letran aipatutako helbururako soilik, eta ekitaldi bakoitzeko soberakin garbien 100eko 10, gutxienez ere, funts horretara bideratzea.

4. Oro har, eta behar bezalako askatasunez, kontsumitzaleen el-karteek administrazioarekin lankidetzen jardunen dute guztien interesak eta berariaz kontsumitzaleen interes bidezkoak zaintza xede duten jarduketetan.

22. artikulua. Kontsumitzaleen elkarrekin funtzionamendua.

Kontsumitzaleen elkarrekin antolaketa eta funtzionamendu demokratikoak izanen dituzte. Eskatzen ahal zaizkien onustearren eta ardu-raren printzipioei jarraituz egiten dituzte beren jarduerak, eta bereziki, uko eginen diote kreditazioen, analisien emaitzen edo behar adina egiazaturiko kalitate-kontrolen bidez bermatuta ez dauden informazioak zabalitzeari. Nolanahi ere, egokitzat jotzen dituzten salaketak aurkezteko eskubidea izanen dute.

23. artikulua. Kontsumitzaleen elkarrekin erregistroa.

Foru lege honetan aitortako eskubideak erabili ahal izateko, kontsumitzaleen elkarrekin erregelamenduz sortuko den erregistroan inskributurik egon beharko dute.

24. artikulua. Kontsumitzaleen elkarreki legezko onurak kentzea.

1. Kontsumitzaleen elkarreki foru lege honetan aitortutako onurak kenduko zaizkie inguruabar hauetakoren bat gertatzu gero:

a) Irabazteko xeda duten pertsona juridikoak baziak gisa onar-tzea.

b) Kontsumitzale edo erabiltzaileentzako produktu edo zerbitzuak merkaturatzen dituzten enpresen laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea.

c) Produktu edo zerbitzuen publizitate komertziala edo informazio hutsa ez den publizitatea egitea.

d) Kontsumitzaleen defentsa ez beste jarduera batzuetan lehen-tasunez aritzea, kontsumoko kooperatibak izan ezik.

e) Epaileak kontsumitzale elkarrea ausarkeria nabarmenez aritu dela iriztea.

f) 22. artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako kasuetan, foru lege honek ai-tortutako onurak kenduko dira kontsumitzale elkarrekin erregistroko inskripzioaren urtebeteko eta bost urte bitarteko etenaldiaren bidez edo behin betiko bajaren bidez. Aldez aurretik administrazio expedientea izapidatuko da, eta ukitutako elkarreki entzunen zaio hartan.

25. artikulua. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua.

1. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua kontsumo gaietarako or-dezkartzatza, konsulta eta parte-hartze organo gisa eratuko da. Kontsumitzaleen erakundeek, enpresaburu enkarrekin, Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak eta Nafarroako administrazio publikoek or-dezkariak izanen dituzte kontseilu horretan.

2. Nahitaezkoa izanen da Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak txostenak egitea kontsumoaren arloan ematen diren arauetik buruz; be-tiere, txostenak arau horiek onetsi aurretik egiten dira.

3. Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez, Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua sortuko du eta haren egitura, osaera eta eginkizunak zehaztuko ditu.

VI. KAPITULUA

Kalte eta galeren ordainerako edo konponketarako eskubidea

26. artikulua. Eskubidearen edukia.

Ondasun edo zerbitzuak erosia edo erabiltzearen ondorioz kalte-ga-lerarik izanez gero, kontsumitzaleek haien konponketarako edo ordai-nerako eskubidea izanen dute, indarra duen legeraren arabera.

III. TITULUA

Kontsumitzaleen eskubideak babesteko mekanismoak

I. KAPITULUA

Produktu, ondasun eta zerbitzuen ikuskapena eta kontrola

1. ATALA

Kontsumoan eragina duen ikuskapena

27. artikulua. Kontsumoan eragina duten ikuskapenak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta toki entita-kek, bakoitzak bere eskumeneko eremuan, behar diren ikuskapenak eginen dituzte. Horrela, ondasun edo zerbitzuak ekoitzi, banatu edo

merkaturatzen dutenak eta horiekin elkarlanean ari direnak zainduko dituzte eta beren jarduera-sektoreko antolamenduan ezarritako bete-behar, debeku eta mugak, foru lege honek babesten dituen interes orokorrein dagozkienak hain zuzen, betetzen dituztela bermatuko dute, interes orokor horiei kalterik egin ez diezaieten.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko organoak eta toki entitateak elkarrekin koordinatuko dira ikuskapen eta kontrol eginkizunak betetzeko.

3. Kontsumitzaileei eskaintzen ari zaizkien edo eskainiko zaizkien ondasun eta zerbitzu guztiak ikuskatu ahal izanen dira, bai eta ekoiz-penean, banaketan eta merkaturatzean erabilitako lehengaiak, estable-zimendua eta mota guztiak makinak ere. Lehentasunez ikuskatuko dira erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorrekozat jotzen diren ondasun, produktu eta zerbitzuak.

28. artikulua. Ikuskatuen betebeharra.

Establezimenduen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek, haien ordezkariek edo ikuskapena egiten denean establezimenduen ardura duden pertsonak betebehar hauek izanen dituzte:

a) Ikuskapen-bisitak onartu eta erraztea.

b) Instalazio, produktu eta zerbitzuei buruz eskatzen dizkieten arribalde guztiak ematea, jarduerarako behar diren baimen eta lizenziak erakustea, eta ikuskatzaileei datuak zuzenean egiaztatzen uztea.

c) Egindako transakzioak eta aplikatutako prezio eta marjinak egiazatzeko dokumentazioaren kopiak, euskalherria edozein dela ere, erakutsi eta uztea, bai eta erantzukizunak zehazteko beharrezkozat jotzen den beste edozein agiri ere.

d) Produktu eta ondasunen laginak har daitezen eta haienkin bes-telako kontrol edo saioak egin daitezen onartzea, ekoizpen, ontziratze edo merkaturatzeko prozesuaren edozein fasetan.

e) Agindutako kautelazko neurriak betetzen laguntzea.

f) Oro har, ikuskatzaileen lanak eta eginkizunak onartu eta erraztea.

2. ATALA

Kontsumoko ikuskatzaileta

29. artikulua. Kontsumoko ikuskatzaileta.

1. Aurreko atalean azaldutako ikuskapen lanak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko Kontsumoko ikuskatzailetzak egin ahal izanen ditu, baina ezertan eragotzi gabe zenbait sektore edo arlotan beste administracio publiko batzuek edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko beste organo edo zerbitzu batzuek egin beharrekoak diren ikuskapenak.

2. Kontsumoko ikuskatzailetzak batez ere merkaturatzeko faseetan jardunen du, kontsumitzaileak babesteko berariaz ezarritako betebeharra, debekuak eta mugak betetzen direla egiazatzeko.

3. Ikuskapen mota hauek egin ahal izanen dira:

a) Merkatua kontrolatzeko ikuskapenak, indarra duen legerian ekoizle, ontziratzaille, importatzaille, banatzaile eta hornitzaleei ezarritako baldintza eta betebeharra betetzen direla egiazatzeko.

b) Merkatua ikertzeko ikuskapenak; hauen bidez informazioa bilten da merkatu azterlanak egiteko eta kontsumitzaileei arriskuak sorgoz ahal ditzkieten sektore, artikulu eta jarduerak atzemateko.

c) Merkatuko eragileei aholku eta informazioa emateko ikuskapenak; horien bidez arauak ezagutu eta betetzeko bidea ematen da eta kontsumitzaileen mesederako izanen diren merkataritza eta fabrikazio praktika onak zabaltzen dira.

30. artikulua. Kontsumoko ikuskatzaileak.

1. Kontsumoko ikuskatzaileek beren burua hala identifikatuko dute ikuskapen lanetan ari direnean eta agintari gisa hartuko dira ondorio guztiarako, bereziki erantzukizun administratibo eta penalari dago-kionez, zerbitzua egin bitartean edo horren ondorioz norbaitek aurka egiten badie, haien aginduak obeditzen ez baditu edo arlo penalean zi-gortzen ahal den beste edozer eginen badu haien aurka, hitzez nahiz egitezet.

2. Ikuskapen lanak egiteko, ikuskatzaileek edo kontsumo arloan esku-mena duten agintarieko beste edozein agintaritzaren laguntza, esku-hartzea, sorospena eta babeska ahal izanen dituzte, halakorik behar badute, eta hark laguntza eman beharko die. Bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta gainerako Administrazio publikoetako beste ikuskatzaileta tekniko batzuekin lankidetza jardun ahal izanen dute eta haien laguntza jaso ahal izanen dute beren esku-mena eta eginkizunen eremuan.

3. Indarra duen legeriarengan arabera, kontsumoko ikuskatzaileek, beren eginkizunetan ari direnean, zilegi izanen dute:

a) Ondasunak ekoitzi, prestatu, biltegiratu, banatu edo saltzen diren edo zerbitzuak egiten diren establezimendu, bulego eta instalazioetara noiznahi eta aurrez abisatu gabe sartzea.

b) Ikuskatzen dituzten enpresetan, beharrezkozat jotzen duten aldi guztietan, industria, merkataritza eta kontabilitate gaietako informazioa eta agiria eskuratzeari, edozein dela ere horien euskalherria, kontsumitzaileen babesari buruzko xedapenak betetzen ote diren begiratzeko, eta halaber, informazio eta agiri horiek eskatzea.

c) Enpresaburu edo profesionalei bulego publikoetara agertzeko eskatzea, etxe partikularrean lan egiten badute, merkataritzako lokalik ez badute edo Kontsumoko ikuskatzailetzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ikuskapena lokalean egiterik ez badago.

d) Ondasun edo produktuen laginak hartzea. Administrazioak kalte-ordaina emanen du lagin gisa hartutako edo kontrolen ondorioz gal-dutako produktuengatik. Kalte-ordinaren zenbatekoa produktuen salmenta balioa izanen da.

e) Foru lege honen 32, 33 eta 34. artikuluetan adierazitako moduan kautelazko neurriak hartzea, bai agintari eskudunak hala aginduta bai norbere ekimenez; azken kasu horretan organo eskudunak kautelazko neurriak berretsi edo kenduko ditu.

f) Kontsumitzaileak babesteko arauak betetzen ote diren jakiteko beharrezkoa iruditzen zaien beste edozein ikerketa edo azterketa egitea.

4. Administrazio publikoen menpeko zerbitzu edo enpresetan, ikuskapenak hain organo eta agintarieko lotura funtzionalik gabe eginen dira, eta ikuskatzaileei eskatzen dituzten informazio guztiak eman beharko zaizkien.

5. Beren egingizkunetan ari direnean, kontsumoko ikuskatzaileek diskretoz, zuhurtasunez eta gizabidez jokatuko dute. Ikuskapen-jardueran administratuei begirunea izanen diente beti, neurri eta proporcioz jokatuko dute eta ikuskatuen lanbide jarduera behar-beharrezkoa den heinean baino ez dute eragotziko. Betiere, lanbidez behartuta egon dena ematen zaizkien informazioak erabat isilpean edukitzera.

31. artikulua. Ikuskapen aktak.

1. Kontsumoko ikuskatzaileek beren jarduketa bakoitzaren akta eginen dute. Bertan ondokoak jasoko dituzte, betiere:

a) Ikuskatutako establezimenduaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren identitatea.

b) Ikuskatzailearen edo ikuskatzaileen identifikazioa, eta ikuskapenean haiekin egin den pertsonarena. Pertsona hori zer dela eta agertu den, eta ikuskatzaileek eskatutako agiriak aurkeztu dituela bere izaera frogatzeko.

c) Jarduketaren arrazoien adierazpena.

d) Hauteman diren egitateak, kasuko inguruabar jakingarriak eta ikuskapenean egin direnek egin nahi izan dituzten oharrak.

e) Ikuskapenaren tokia, eguna eta ordua.

f) Ikuskatzaileen eta haiekin egin den pertsonaren sinadurak. Pertsona horri sinatu aurretik jakinarazi behar zaio aktaren edukiari buruz oharrak egiten ahal dituela aktan jaso daitezen.

Pertsona horrek sinatzen ez badu ere, akta baliozkoa izanen da. Sinatzeari uko egiten badio, nahitaez sinatu behar duela jakinaraziko zaio, eta ohartaraziko zaio bisita egin dela jasorik utzeko helburu soila-rekin sinatzen ahal duela, a), b) eta e) letratako datuak ontzat emateko bakar-bakarrik. Hori guztila aktan jasoko da.

2. Behar denean, honako hauek ere aktan jasoko dira:

a) Instalazio, produktu edo zerbitzuetan egindako laginketa, neurketa, egiaztapen edo bestelako kontrolen deskripzioa.

b) Agintaritzak agindu eta interesatuarti eragiten dioten administrazio neurrien jakinarazpen pertsonala eta horiek ez betetzeak ekartzen ahal dituen ondorioei buruzko informazioa.

c) Aktari erantsitako agirien zerrenda. Agiri horietan identifikazioa jarri behar da.

3. Ikuskapenean egin den pertsonaren aurrean formalizatuko da akta, eta sinatu ondoren kopia bat emanen zaio.

4. Ikuskatzaileek legezko baldintzak betez aktan jasotzen dituzten gertaerek froga-balioa izanen dute, indarra duen legerian xedatutakoaren arabera, deusestan ukatu gabe interesdunek beren eskubide edo interesen alde aurkezten ahal dituzten frogak.

II. KAPITULUA

Kautela edo prebentziozko neurriak

32. artikulua. Badaezpadako neurriak.

Agintaritza eskudunak berehalera edo lehenbailehen hartuko ditu kautela edo prebentziozko neurri egokiak, kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan dagoela argi ikusten denean edo haien interes ekonomiko eta sozial bidezkoen aurkako urratze larriak egiten direnean.

33. artikulua. Kautelazko neurri motak.

Kautelazko neurri hauek hartu ahalko dira:

a) Produktuak lekuz aldatzeko debekua.

b) Produktuak merkatutik ateratzea.

c) Establezimendu edo zerbitzuaren atalen baten funtzionalmendua etetea.

d) Establezimendua itxi edo jarduera geldiaraztea.

e) Kasuaren inguruabarren arabera beharrezko den beste edo zein neurri.

34. artikula. Neurrien proportzionalitasuna eta interesdunari entzutea.

1. Kautelazko neurriak atzemandako irregularitasunaren propozioak izanen dira eta ahalik gutxien iraunen dute, behar diren kontrol eta egiaztapenak zentro kualifikatuetan egin arte edo interesatuek arazoa konpondu edo arriskua erabat ezabatu arte soilik. Neurria haritzeko agindu zuen agintaritzak arazoa konponduta dagoela egiaztatu beharko du.

2. Kautelazko neurriak hartzearaz gain, zehapen espedientea abian jarri ahal izanen da, kontsumitzaleen babesaren arloko arau-hausterik badago. Kautelazko neurriak jakinaraztearekin batera interesdunari entzuteko epea ezarriko da, gehienez bost egun baliodun, eta agintaritzaz esudunak hamar egun balioduneko epea izanen du ebazpena emateko.

35. artikula. Informazioa trukatzeko sistema.

Nafarroako Foru Komunitateko mugen gainerako arriskua egonez gero, agintaritzaz esudunak jakinaren gainean jarriko ditu Estatuko administrazio orokorra eta arriskupean egon daitzekeen lurraldeetako administrazioak, horretarako ezarritako bide eta prozedurak erabiliz.

III. KAPITULUA

Gatazkak auzitegitik kanpo ebazteko bideak

36. artikula. Bitartekotza eta adiskidetzea.

Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bitartekotza eta adiskidetzea sustatuko dituzte, kontsumoaren arloko gatazka eta erreklamazioak auzitara jo gabe ebazteko bideak baitira.

37. artikula. Kontsumo arloko arbitrajea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, indarra duen legeriaren esparruan, Kontsumoko Arbitraje Sistemaren garapena sustatuko dute, kontsumitzaleei eragiten dieten gatazkak auzitegitietik kanpo ebazteko bidea den aldetik, eta enpresak, profesionalak eta haien erakundeak sistema horri atxikitzen bultzatzeko dituzte.

2. Administrazio horiek, halaber, bakoitzak bere eremuan, Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzen bultzatzeko dituzte beren menpeko entitate eta enpresa publikoak eta horien zerbitzu publikoak kudeatu edo baliabideak jasotzen dituzten entitate edo enpresa pribatuak.

IV. TITULUA

Zehatzeko ahalmena

38. artikula. Zehapen ahalmena eta zehapen prozedura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek dagokie kontsumoaren arloko zehapenak ezartzeko ahalmena, legez eta erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

2. Foru lege honetan eta bere erregelamenduzko garapenean aurreikusi gabeko orotan, xedapen hauek hartuko dira aintzat zehatzeko ahalmena erabiltzeko: Herri dministrazioen araubide juridikoari eta administrazio procedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluan xedatutakoak, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan dagokionez, aurrekoaz gainera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan xedatutakoak.

39. artikula. Arau-hausteen tipifikazioa.

Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek kontsumitzaleen defentsaren arloko arau-hauste administratiboak dira:

a) Prezioei buruzko arauak ez betetzea, eskatu ez diren baldintza edo prestazio osagarrak edo gutxieneko kopuruak bidezko arrazoirik gabe ezartzea, eta, oro har, prezioen edo marjina komertzialen neurri gaineko gehikuntza eragiten duen beste edozein jarduketa.

b) Kontsumitzaleak onustez edo finkatutako ohiturari jarraituz egiten dituen eskariei ezezkoa ematea bidezko arrazoirik izan gabe, eskatutako betetzea ohiko saltziale edo zerbitzu-emailearen esku egon arren, eta eskari horien aurrean edozein motatako bereizkeriaz jardutea.

c) Zerbitzu jarraituetarako kontrata duen kontsumitzaleari kontratu hori prozedura itunduaren bidez bertan behera uzteko eskubidearen erabilera oztopatzea, edo zerbitzuan baja emateko prozedurariak ez izatea.

d) Egindako transakzioaren fakturak edo frogagiriak ez ematea edo emateko trabak jartza, kontsumitzaleak haien eskatzen dituenean edo, bestela, lege nahiz erregelamenduzko xedapenek hala aginduta norbaiti eman behar zaizkionean; eta eragiketa hasi aurretik aurrekontua eta/edo aurretiatzko gordailuaren gordekina, behar bezala xehatua eta azaldua, ez ematea edo emateko trabak jartza, lege edo erregelamenduzko xedapenek horiek emateko agintzen dutenean.

e) Enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionalmendu egokiak eta kontsumitzalearen babes bermatzeko nahitaez bete behar diren dokumentazio eta informazio arauak ez betetzea. Beleziki, erreklamazio orriei buruzko arauak ez betetzea.

f) Ondasun eta zerbitzuen erregistro, normalizazio edo tipifikazioa, etiketei, omtziratzeari eta publizitateari buruzko arauak ez betetzea.

g) Segurtasunari buruzko xedapenak ez betetzea, arau-hausteak kontsumitzaleari eragiten dionean edo arriskua ekartzen ahal dionean.

h) Produktu edo zerbitzuaren egiazko ezaugarriak edo hura emateko baldintzak ezkutatzen dituen edo oker ulertzeko bidea ematen duen edozein jokaera.

i) Ondasun edo zerbitzuen kalitatea, kopurua edo jatorria dela-eta iruzur egitea.

j) Ondasun iraunkorrak bermatu eta konpontzearen arloko iruzurra egitea, horri buruzko arauak hausten direlako edo kontsumitzaleari esaintzen zaizkion ordezko piezak eta lagunza teknikoa ez direlako ondasunak erosio zituenean agindutakoak adinakoak.

k) Kontsumitzaleentzako produktu, zerbitzu edo jarduerak eskaini, sustatu eta iragartzen direnean iruzur egitea, baldintzak ez betetzea edo gezurra esatea.

l) Arbitraje sistemaren menpe jartzeari uko egitea, enpresaburuak sistema horri atxikita dagoela adierazten duen ikurraren publizitatea egin duelarik, merkaturatzenten dituen ondasun edo zerbitzuen eskaintzan edo sustapenean hura edozein modutan agerraziz.

m) Abusuzko klausulak edo jokaerak sartzea edo inposatzea.

n) Kontsumitzaleei aukeratzeko askatasuna mugatzea edo eroskeko erabakia baldintzatzea, salmentarako metodo eta teknika gogorrak erabiliz.

o) Ikuskapen edo zaintza lanetan traba egitea, ikuskatzaleei datuak ez ematea eta laginak hartzen eragoztea.

p) Administrazio organoei jaramonik ez egitea, zehapena ekar dezaketen gertaerak eta erantzukizunak argitzeko asmoarekin errekerenduak egiten ditutzenean.

q) Agintaritzaz esudunak ezarritako kautela edo prebentziozko neurriak ez betetzea eta haien esku-hartzearen xede diren salgaiak ezkutatu, deuseztatu edo manipulatzera bideraturiko edozein jokabide.

40. artikula. Arau-hausteen kalifikazioa.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izanen dira, irizpide hauen arabera:

a) Kontsumitzaleen osasunaren edo segurtasunaren kontrako kalte edo arriskurik ekarri izana.

b) Kontsumitzaleen interes ekonomikoei kalterik egin izana.

c) Produktu edo zerbitzuaren hartzaleen ahultasun gradua.

d) Ukituen kopurua.

e) Gizartearen eragindako nahastea.

f) Lortu den mozkin bidegabekoaren zenbatekoa, ondasun edo zerbitzuaren balioaren aldean.

g) Doloa edo errua.

h) Arau-hausleak merkatuan duen posizioa.

i) Arau-hausteean berrerori izana eta, kasua bada, haien errepikatu izana.

j) Arau-hauslearen salmenta kopurua.

41. artikula. Erantzuleak.

1. Erantzule izanen dira, doloz nahiz zuhurtziagabeketiaz, foru lege honetan arau-hastetzat jotzen diren ekintza edo omisio antijuridikoak egiten dituzten edo halakoetan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Ondasun edo zerbitzu beraren inguruan hainbat subjektuk esku hartzen dutenean ekoizle, importatzaile, banatzaile, xehekarri edo bestelako gisa, bakoitzak erantzun beharra izanen du berak, kasua bada, egin duen arau-hausteagatik. Zehapen bereiziak ezarriko zaizkie, bakoitzari berea, bakoitzak egin duen arau-haustearren inguruabar objektibo eta subjektiboa aintzat hartuz.

3. Produktu ontziratu, etiketadun edo erabat itxiak egiten diren arau-hausteengatik, erantzukizuna izanen du etiketan, aurkezpenean edo publizitatean ageri den enpresak edo sozietate-izenak, importatzileak edo lehenbiziko merkaturatzileak.

Bere erantzukizunetik aske geratu ahal izanen da baldin eta frogatzentz badu beste batzuek produktuak faltsutu edo behar ez bezala manipulatu edo kontserbatu dituztela. Beste pertsona horiek erantzukizuna izanen dute, produktua nola manipulatu edo kontserbatu behar den adierazi baziae.

Ontziratzalea ere erantzule izanen da, markaren jabearekin batera arau-haustearren jakitun izan dela frogatzen bada.

4. Solteko produktuekin egiten diren arau-hausteen erantzulea haien edukitzalea izanen da, salbu eta lehenagoko edukitzale batzen erantzukizuna ziurtasunez frogatzeten ahal denean.

42. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzuleei ondoko zehapenak ezarriko zaizkie:

a) Arau-hauste arinak: idatzizko zentzarazpena edo gehienez 3.000 euroko isuna.

b) Arau-hauste larriak: 3.000,01 eurotik 15.000 eurora bitarteko isuna. Zenbateko hori gainditu ahal izanen da arau-haustearren xede diren produktu edo zerbitzuen balioa boskoitzu arte.

c) Arau-hauste oso larriak: 15.000,01 eurotik 600.000 eurora bitarteko isuna. Zenbateko hori gainditu ahal izanen da arau-haustearren xede diren produktu edo zerbitzuen balioa boskoitzu arte.

2. Isunaren zenbatekoa zehaztean kontuan hartuko da foru lege honen 40. artikulan xedatutakoa.

Zehapen ebazpena eman aurretik egoera zuzendu eta eragindako kaltea konpontzen bada, hori kontuan hartuko da isunaren zenbatekoa finkatzerakoan.

3. Arau-hausleari behar adinako isuna ezarriko zaio, arauak urratzea harentzat ez dadin izan arauak betetzea baino onuragarriagoa. Betiere proporcionaltasunaren printzipioari jarraituko zaio eta arau-haustearren larritasunaren araberako zehapena ezarriko da.

4. Nafarroako Gobernuari dagokio isunen zenbatekoak aldian behin berrikusi eta eguneratzea.

43. artikulua. Otras sanciones.

1. Espedientea ebazteko eskumenen duen agintariak, zehapen osagarri gisa, agindu ahal izanen du, instruktoreak hala proposatuz gero, salgai aizunduak, faltsutuak, iruzurrezkoak, identifikatu gabekoak eta, oro har, kontsumitzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeenak dekomisatzea. Salgaia hartu, gordailutu, dekomisatu eta suntsitzeo gastuak arau-hauslearen kontura izanen dira.

2. Arau-haustea oso larria denean, expedientea ebazteko eskumenen duen agintariak, neurri osagarri edo autonomo gisa, dekretatu ahal izanen du arau-haustearren erantzukizuna duen enpresa, establezimendua edo industria aldi baterako ixtea, gehienez best uterako.

3. Zehapena eredugarria izan dadin, eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasunaren kontrako benetako arriskua edo kaltea eragiten denean, edo hain interes ekonomikoei kalte larria egiten zaien, arau-hauste larri edo oso larriean berrerortzen denean edo arau-haustek nahita egin direla frogatzenean, zehapen prozedura ebazten duen agintariak erabaki ahal izanen du ezarritako zehapena jendaurrean erakustea. Horrelakoan aditzen emanen dira pertsona natural edo juridiko erantzuleen izen-abizenak, deitura edo sozietaleen izena, arau-hausteen mota eta izaera, dena delako produktu, jarduera edo zerbitzuaren nondik norakoak eta ezarritako zehapen nagusia. Datu horiek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta gehien zabalten diren komunikabideetan argitaratuko dira eta arau-hausleak oraindik ditu argitalpenaren gastuak.

4. Publizitatearen arloko arau-haustek egiten direnean, organo zehatzaleak arau-hausleari eskutu ahal izanen dio eginkiro publizitatea zuzentzeko. Zehatutako jarduketa egin zen baldintza berberetan edo antzekoan egin beharko da zuzenketa.

5. Halaber, zehapen gisa, enpresa edo profesional erantzuleari ordainarazi ahal izanen zaizkio ikertutako arau-haustea egiaztatzeko egin diren analisen gastuak, bai eta laginak harteagatik edo kontroletan produktuak hondatzeagatik administrazioak eman dituen kalte-oraindak ere.

44. artikulua. Zehapenen ondorio osagarriak.

1. Zehapen organoak, arau-hauste oso larriak egiten direnean, agintari eskudunari proposatu ahal izanen dio enpresa zehatuarri emandako edo hark eskututako laguntza ofizialak ezezta, deuseztatzen edo uka daitezela.

2. Halaber, gaiari buruzko legerian ezarritakoarekin bat, arau-hauste oso larriengatik zehapena ezartzen zaien enpresei Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoekin kontratuak egiteko gaitasuna kendu ahal izanen zaie best uterako, ezarritako zehapena irmo bihurtzen den egunetik zenbatzen hasita.

45. artikulua. Huts-egiteen preskripzioa.

1. Foru lege honetan aipatutako arau-haustek honako epe hauek iragaten direnean preskribatuko dira:

- a) Arau-hauste oso larriak, hiru urteren buruan.
- b) Arau-hauste larriak, bi urteren buruan.
- c) Arau-hauste arinak, urtebeteren buruan.

2. Preskripzio epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egiten den egunean, eta zehapen prozedura hasten denean eten eginen da, interresduna horren jakitun bada.

46. artikulua. Zehapen preskripzioa.

1. Zehapenak honako epe hauek iragaten direnean preskribatuko dira:

- a) Arau-hauste oso larriengatiko zehapenak, hiru urteren buruan.
- b) Arau-hauste larriengatiko zehapenak, bi urteren buruan.
- c) Arau-hauste arinengatiko zehapenak, urtebeteren buruan.

2. Preskripzio epea kontatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik.

Xedapen gehigarri bakarra. Zehapen araubideari buruzko bidaltzeoharrak.

Foru lege honen IV. tituluan ezarritakoaren ondorioetarako, arau-hausteen tipifikazioa eta kalifikazioa eta zehapen mailakapena arautzen dituzten beste xedapen batzuek Kontsumitzailea eta Erabilzaileak Defendatzeko uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorra bidaltzen duten guztietan foru lege honetako artikulueta bidaltzen dutela ulertuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetzen dira foru lege honen aurrekoak eta maila bereko naziz apalagokoak diren arau guztiak, foru lege honi kontra egiten dioten neurrian.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Foru legearen garapena eta aplikazioa.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko arau guztiak eman ditzan.

2. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bat eginen du etxebizitzen salerosketan eta errantamenduan eman beharreko informazioari dagokionez kontsumitzaile eta erabilzaileen babesea arautzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogei egunera hartuko du indarra.

Nik, Nafarroako Foru Eraientza Birrezzari eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 22. artikulan xedatutakoa bete dadin, foru lege hau B.M. Erregearen izenean aldarrikatzen dut, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN berehala argitara eta "Estatuko Aldizkari Ofizial"era igor dildila agintzen dut eta hiritar eta agintariei bete eta betearaz dezaten manatzen diet.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an.–Nafarroako Gobernuko lehendakaria, *Miguel Sanz Sesma*.

F0610913

8/2006 FORU LEGEA, ekainaren 20koan, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa.

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA NAIZEN HONEK.

Aditzen ematen dut Nafarroako Parlamentuak honako hau onetsi duela,

NAFARROAKO SEGURTASUN PUBLIKOARI BURUZKO FORU LEGEA.

ZIOEN AZALPENA

1

Espaniako Konstituzioak, Nafarroako Foru eraenta berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Segurtasun indar eta kidegoei buruzko marxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bateginak (urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) ezarri dute, funtsean, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege honen oinarri izanen den eskumen-markoa. Testuinguru horretan, kontuan izanik Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoen aniztasuna eta gizartean segurtasunaz dagoen kezka gero eta zabala goa, beharrezko da Nafarroako Foru Komunitateak segurtasun publikoaren arloan dituen eskumenak segurtasun sistema koordinatu eta bakarrean antolatuko dituen araua egitea. Sistema horrek gai izan behar du herriaren segurtasuna bermatutu duten politika errealista, praktiko eta eraginkorrazko ezarri eta garatzeko, erakundeen leialtasunaren printzipioari hertsiki lotuta eta, horrenbestez, esku hartu behar duten administrazio publiko guztien eskumenak erabat errespetatuz. Arau horrek foru legea izan behar du ezinbestean, haren helburuen lorpena ekarriko duten neurri, betebehar eta eskubide guztiak ezarri ahal izan daitezen.

2

Foru lege honen xedea da Nafarroan segurtasun publikoko sistema egokia eratzea, administrazio publiko guztiak partaide izanen dituena eta osagarritasunaren, lankidetzaren, koordinazioaren, elkarri informazioa ematearen eta erakundeen leialtasunaren printzipioetan oinarrituko dena. Gainera, herriarrei parte hartzeko aukera emanen die segurtasun kontseiluen bitartez. Foru lege honek, beraz, ardura partekatzeko es-

katzen die Nafarroako Gobernuari eta administrazio nafarrei, bereziki udalei, eta ildotik beretik koordinazio eta plangintzarako tresnak ezartzen ditu, bestea beste tokiko segurtasun batzordeak, lankidetza hitzarmenak, polizia-informazio sistema bateratua eta hainbat motatako segurtasun planak. Azken batean, foru lege honen bidez eraginkortasuna areagotu nahi da eskura dauden baliabideak zentzuz eta iraunkortasunez erabiltzeko eta bide horretatik herritarren segurtasunaren inguruan emaitza egokiak lortzeko.

Herritarrei begira, segurtasun publikoko sistemak, eta bereziki poliziaren jarduerak, herritarrentzako zerbitzu publikoen ereduari jarraitzen dio eta halako zerbitzuen printzipioak ditu oinarri: gizartearen eskariari egokitzea, proportzionaltasuna eta arrazionaltasuna, hurbiltasuna eta erantzun azkarra, polizien ekintza multiformea, eraginkortasuna, erantzunaren planifikazioa eta emaitzen ebaluazioa, eta segurtasunarekin zerikusia duten baliabide eta bitarteko guztien arteko harremanak. Polizia-jardueraren funtsezko printzipio horretatik abiatu behar da gaurko polizia-sistemaren bilakaera, gizartearen kontrako portareairei aurre egin edo erantzuteko ekintza hutsetatik metodo modernoagoetara pasatzeko. Erantzuna polizia-jardueraren osagai nagusia izanik ere, metodo berriaren prebentzio jarduera ere lehenesten da, bai eta plangintzan eta azterketan oinarritutako teknika berriak ere, guztiz praktiko eta metodikoak, behin eta berriz gertatzen diren edo poliziaren esku ez dauden alderdiak dituzten segurtasun arazoetik aurre egiteko. Printzipio horiek aplikatu ahala, zalantzarak gabe polizia herritarrei hurbilduko zaie eta azkenik gizartearekin bat egindako polizia lortuko da, herritar eta eraundeen arteko lotura estuagoa sustatzeko gai izanen dena, gizartearen batasun handiagoaren oinarri gisa.

Beste alde batetik, Foru Komunitateko lurralte eremu guztietan segurtasunaren planifikazio orokorra eginez, Segurtasun Plan Orokoretik eta udalerrietako nahiz udalez gaindiko planetatik abiatuta, polizia-eraundek guztien eginkizun bakarra ezartzen da, alegia, herritarren interes orokoren alde lan egitea eraginkortasunez, elkarrekin koordinaturik eta indarra duen legeriak ezartzen duen esparruan. Horrek lan-filosofia bateratua sortuko du, planifikatutako xedeak lortzera bideratua.

3

Foru lege hau dela medio, administrazio publikoek, agintariekin, polizia-kidegoek eta segurtasunarekin zerikusia duten gainerako zerbitzu publiko edo pribatuek batera parte hartu ahal izanen dute segurtasun publikoari buruzko politiken diseinuan, aplikazioan eta ebaluazioan. Berrikuntza nagusia, ordea, herritarrek beren segurtasun arazoaren konponketan parte hartu ahal izatea da. Parte-hartze horri esker sistemak berak eta hura osatzen duten polizia-zerbitzuek hobeki ezagutu eta ulertu ahal izanen dituzte delinkuentzia, indarkeria eta, oro har, herritarrek beren ingurune hurbilean segurtasun eza dela-eta jasaten dituzten arazoak.

Espaniako Konstituzioak herritarren segurtasunaren kontzeptua darabil ordena publiko tradizionalaren ordez. Aldaketa garrantzitsu horrek eragin handia du legean betearazi behar duten erakunde funtzionamenduan, izan ere ikuspegi horretatik segurtasun publikoak berezko osagaia baitu giza elementua, jendea hain zuzen. Horrela herritarrek leku nagusia hartzan du, alde batetik botere publikoen arretagune nagusia eta bestetik bere segurtasunaren funtsezko eragilea delako. Ildo horretan, segurtasun publikoaren politikak egiteko edozein prozesu sustatu eta erraztu egir behar du herritarrek ere politika horiek formulatzeko ardura har dezan, segurtasun zerbitzuen eta herritarren edo horien elkartean arteko lankidetzan sakondu behar du eta, oro har, segurtasun publikoaren arloko administrazioari bidea eman behar dio herritarrengana gehiago hurbiltzeko. Esparru horretan kokatu behar dugu foru lege hau, beraren bidez segurtasun kontseiluak eratuko baitira Foru Komunitatean. Egunero gizartearen bizikidetza garatzeko prest agertzen diren sektore zabaleei lekuak eskaini nahi zaie kontseilu horietan eta segurtasun politikaren diseinu berria lortu nahi da, orain arte nagusi izan den eskema itxia gaindituta, segurtasuna ez baita poliziaren eta erakunde espezializatuen kontua bakarrik.

4

Foru legeak honako egitura du: sei kapitulutan bildutako hogeita zortzi artikulu, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

I. kapituluan foru legearen xedea eta helburuak definitzen dituzten xedapen orokorrak daude. Segurtasun publikoko sistemaren printzipio nagusiak azaltzen dira eta segurtasunaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoen arteko harremanak arautzen dituztenak ze-hazten dira, bai eta Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoen jardueraren oinarri izanen diren printzipioak ere; eta, azkenik, herritarreko harremanei buruzko printzipioak jasotzen dira.

II. kapitulua segurtasun publikoko sistemaren antolaketaren gaineko da. Arlo horren antolamendu administratiboa biltzen du, berrizko eginkizunak esleitzen dizkie administrazio autonomikoari eta toki administrazioari, eta segurtasun publikoaren eremuko parte-hartze eta koordinazio organoak arautzen ditu, hala nola Herritarren Segurtasuneko Kontseilua, toki kontseiluak, Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea eta segurtasunerako toki batzordeak.

III. kapituluak udalzaingoen koordinazioaz dihardu, Nafarroako Gobernuari eginkizunak esleitzen dizkio eta Nafarroako Udalzaingoak Koordinatzeko Batzordea arautzen du.

IV. kapituluak segurtasunaren planifikazioaz dihardu eta plan motak, planen gutxieneko edukia eta haien onespenea arautzen ditu.

V. kapituluak administrazio publikoen arteko harremanei buruz dihardu eta horiek sustatzeko tresnak ezartzen ditu, hala nola, informazio estatistikoak, polizia-informazio sistema bateratua edo Nafarroako Gobernuarenko lankidetza hitzarmenak. Gainera, Foruzaingoaren eta udalzaingoen arteko eginkizun-mugaketa arautzen du eta polizia-kidego bakoitzari dagozkion eginkizunak finkatzen, baita baterako eginkizunak ere.

VI. kapituluak herritarreko harremanei buruz dihardu, herritarrei beren ordezkartzia organoaren bidez segurtasun publikoaren arloko lanetan parte hartzeo eskubidea onartzen die, bai eta kexa eta eskaerak egiteko eskubidea ere, eta, azkenik, Nafarroako administrazio publikoiei beren segurtasun zerbitzu publikoen gutun bana egiteko agintzen die.

Foru legearen azken zatiko xedapen gehigarrian adierazten da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko zein agintariak duten eskumen segurtasun arloko zehapenak ezartzeko, Herritarren segurtasunaren babesari buruzko Lege Organikoan eta Segurtasun pribatuari buruzko Legean xedatutakoaren arabera. Halaber, beste xedapen gehigarri bat dauka, segurtasun publikoko lagunzaileei buruzkoa.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta helburuak.

1. Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateak segurtasun publikoko gaietan dituen eskumenak, batez ere polizia arlokoak, segurtasun sistema orokor batean antolatzea. Sistema horrek partaide izanen ditu administrazio publiko guztiak, bai eta segurtasunaren arloan erantzukizuna duten koordinazio organoak eta herritarrek parte hartzekoak, eta beraren bidez herritarren segurtasuna bermatzeko politika errealistak, praktiko eta eraginkorraz ezarri eta garatuko dira.

2. Zehazki, hona hemen foru lege honen helburuak:

a) Herritarren eskubide eta askatasunak, bake publikoa, bizikidetza egokia eta batasun soziala eraginkortasunez bermatuko dituzten prebentzio eta babes politika publikoekin ezaugarriak eta garapena sustatzea.

b) Segurtasun publikoarekin zerikusia duten administrazio, agintari eta zerbitzuen arteko lankidetza eta koordinazioan sakontzea.

c) Herritarrei bermatzea Nafarroako Foru Komunitate osoan segurtasun zerbitzuak homogeneotasunez jasotzea eta eskubidea.

d) Segurtasun kontuetan administrazio eta agintaritzat publikoek ardurak partekatu dituzten eta, halaber, herritarrek segurtasun arloko politiken sorreran eta jarrai-penean parte har dezaten sustatu eta erraztea.

e) Bide ematea segurtasun publikoaren arloko administrazioa herritarrei gehiago hurbiltzeko eta haren funtzionamendua bizkortzeko.

f) Herritarren konfiantza lortzea, hau da, herritarrei erakustea polizia eta botere publikoak lanean ari direla eta eraginkortasunez aruratzen direla segurtasunaren inguruko egiazko arazoetan.

2. artikulua. Segurtasun publikoko sistema.

Nafarroako segurtasun publikoko sisteman honakoak biltzen dira: Foru Komunitatean segurtasun gaietan eskumenak duten erakunde eta agintariak, polizia-kidegoak eta segurtasunaren arloko gainerako zerbitzu publikoak, eta segurtasunaren arloko koordinazio eta parte-hartze organoak.

Halaber, Nafarroako segurtasun publikoko sistemako partaide dira segurtasun-zerbitzu pribatuak, foru lege honetan eta haiek arautzen dituen araudian xedaturiko moduan.

3. artikulua. Oinarritzko printzipioak.

1. Foru lege honetan ezarritako segurtasun publikoko sistema gauzatzeko, segurtasunaren eremuan ari diren administrazio publiko eskudunek beren jardunean printzipio hauek beteko dituzte: erakunde leialtasuna, osagarritasuna, elkarri informazioa ematea, lankidetza, koordinazioa eta laguntza.

2. Segurtasun publikoko sistemak, eta bereziki Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoen jarduerak, ondoko printzipio hauek izanen ditu oinarri:

a) Arriskua eta mehatxuei aurrea hartzea.

b) Gizartearen eskariaren arabera jardutea.

c) Gizartearen aurkako egintzen kontrolaren proportzionaltasuna eta arrazionaltasuna.

d) Presentzia orokorra eta iraunkorra lurralte guztian, herritarreko hurbiltasuna eta laster erantzutea.

e) Kideen jarduketak askotarikoak izatea, espezializazioa ukatu gabe.

- f) Ekintzaren eraginkortasuna eta bitarteko nahiz baliabideen esleipenaren efizientzia.
- g) Arazoak identifikatzea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak evaluatzeara.
- h) Segurtasunarekin zerikusirik izan eta bazterkeriaren aurkako borrokan eginkizunen bat duten erakunde, zerbitzu eta antolakunde publiko zein pribatuekin elkarreagin-harremanak izatea.
3. Gizartearen aurkako egintzarik ezak frogatzentzako segurtasun sistemaren eraginkortasuna, eta ez halako egintzen aurkako polizia-jardunaren nabarmentasunak.
4. Herritarrekiko harremanetan, segurtasun publikoko sistema integralak partaidetzaren, gardentasunaren eta informazioaren printziopia oinarriko.
4. artikulua. Definizioak.
- Foru lege honek agintzen duenerako, honako definizioak hartuko dira aintzat:
- a) Gizartearen aurkako egintzak dira portaerari buruzko arau aldarrikatu edo onartuen aurkako portaerak, berez edo beren emaitzen ondorioz kalte egiten diotenak gizarte harremanetan behar den harmoniarri.
- b) Prebentzioa da gizartearen aurkako egintzaren kausak deuseztatzea, edo, deuseztatzerik ez badago, balizko egilearen asmoa aldaraztea, ekintzari uko egin diezaion.
- II. KAPITULUA**
- Segurtasun sistemaren antolaketa*
5. artikulua. Nafarroako Gobernua.
1. Konstituzioak, Nafarroako foru eraenta berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta indarra duen legeriak ezarritako eskumen-esparruan, Nafarroako Gobernuari dagokio eskubide eta asmatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea Foru Komunitatean, deusetan galarazi gabe Estatuko agintari eta segurtasun indar eta kidegoen eskumeneko eginkizunak eta beste botere publiko batzuen ahalmen eta betebeharak.
2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio:
- a) Segurtasun publikoaren arloko helburu orokorrak eta funtsezko gidalerroak finkatzea.
- b) Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra onestea.
- c) Zehapen ahalmena erabiltzea, foru lege honetan ezarritako moduan.
- d) Foru lege honek eta indarra duten gainerako legeek ematen dizkioten beste eginkizun guztiak betetzea.
6. artikulua. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentua.
- Segurtasun publikoaren arloko eskumena ematen zaion departamentua, Nafarroako Gobernuak ezarritako helburu orokoren arabera, Foru Komunitateko herritarren babesari eta segurtasunari buruzko politika gauzatzeko ardura duen organoa da, eta berari dagozkio, ildotik, Foruzaingoaren goi zuzendaritzarik, udalzaingoen koordinazioa eta foru lege honetan eta indarra duen antolamenduko gainerako arauetan ezartzen zaizkion beste eginkizun guztiak.
7. artikulua. Segurtasun publikoaren arloko agintari publikoak.
1. Foru lege honen ondorioetarako honakoak dira segurtasun publikoaren arloko goi agintari publikoak:
- a) Arlo horretako eskumena ematen zaion departamentuko kontseilarri titularra.
- b) Alkateak, beren eskumenen esparruan eta udal eremuan.
2. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen kontseilarriak eginkizun hauek izanen ditu:
- a) Nafarroako Gobernuaren segurtasun politika betearaztea.
- b) Nafarroako Foruzaingoaren goi zuzendaritzarik aurerrera eramatea.
- c) Herritarren segurtasuna zaindu eta berrezartzeko behar diren jarduketak egin daitezela agintzea.
- d) Nafarroako udalzaingoen koordinazioa sustatzea.
- e) Prestakuntzarako eta espezializaziorako politikak sustatu eta koordinatzeari.
- f) Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluko buru gisa jardutea.
- g) Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra Nafarroako Gobernuari aurkeztea, onets dezan.
- h) Foru lege honen helburuak lortzeko behar diren ekintzak sustatu eta koordinatzeari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan.
- i) Nafarroako segurtasun publikoaren gaineko urteko txostenak Nafarroako Gobernuari aurkeztea, onets ditzan.
- j) Zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea, foru lege honetan eta indarra duten gainerako legeetan agintzen zaion moduan.
- k) Segurtasun publikoaren arloan indarra duten xedapeneak ezartzen dioten beste edozein eginkizun.
3. Alkateek ondoko eginkizunak izanen dituzte, ezertan galarazi gabe toki legeriak esleitzen dizkien gainerako eginkizunak:
- a) Segurtasun gaietan Udalaren jarduketak antolatu eta zuzentzea, indarra duen antolamenduari jarraituz.
- b) Tokiko Segurtasun Batzordeko buru gisa jardutea eta haren erabakiak bete daitezen begiratzea.
- c) Udalzaingoaren edo, hala tokatzen denean, albienteengoi agintari gisa jardutea, segurtasunarekin zerikusia duten jarduketetan.
- d) Foru lege honen helburuak betetzeko behar diren ekintzak sustatu eta koordinatzeari udal eremuan.
- e) Tokiko segurtasun plana onestea eta udaleko osoko bilkurari haren berri ematea.
- f) Udaleko osoko bilkurari tokiko segurtasun planaren aplikazioaren eta gorabeheren berri ematea urtero.
- g) Zehatzeko ahalmena erabiltzea, indarra duen legeriak agintzen dien moduan.
- h) Foru lege honek eta segurtasun publikoaren arloan indarra duten gainerako legeek ematen dizkioten gainerako eginkizunak.
8. artikulua. Nafarroako polizia-kidegoak.
1. Nafarroako Foruzaingoa eta udalzaingoak dira Nafarroako administrazio publikoen polizia berekia.
2. Foruzaingoak Nafarroako Foru Komunitatea izanen du jarduteko lurralte-eremua.
3. Udalzaingo bakoitzak bere udalerria izanen du jarduteko lurralte-eremua, premiazko egoera berezietan izan ezik, halakoetan udal mugapetik kango jardun ahal izanen baitu, toki entitateek horretarako sinatutako lankidetza hitzarmenetan edo koordinazio planetan ezarritako baldintzak betez. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentua oniritzia eman beharko du aurretiaz. Alabaina, larrialdietan nahikoa izanen da laguntha behar duen lurralteko agintari esku-dunak aurretiaz laguntha eskatzea.
- Halaber, toki korporazioetako agintariak babesteko eginkizunak betetzen ari direnean, udal mugapetik kango jardun ahal izanen dute, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuaren baime-narekin, jarduketa horiek oso-osorik Nafarroako Foru Komunitatearen lurralte-eremuaren barrenean egiten dituztenean.
4. Foru Komunitateko erakunde berekietako polizia-kidegoen arteko harremanak arautzen dira segurtasun-sistema orokorra antolatzenten printzipioei loturik; bereziki, osagarritasun, koordinazio, laguntza, lankidetza eta elkarri sorostearen printzipioei, batez ere tokiko segurtasun batzordeen baitan. Segurtasun publikoaren arloko eskumenen titular den departamentuaren eta udalen artean sinaturiko hitzarmenek udalerrri bakoitzeko baldintzeta egokituz eta zehaztu behar dituzte printzipio horiek.
5. Gobernuak, batez ere segurtasun publikoaren arloko eskumenen titular den departamentuaren titarte, bai eta udalek ere, beren baterako organoaren baitan sustatu behar dituzte beren segurtasun-zerbitzuen plangintza operatiboa eta baliabideen esleipen efizientea eta baterako aprobetxamendua, polizia-informazio sistemen integrazioa eta antolaketa eta operazio arloetako estandarren homogeneizazioa.
9. artikulua. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua.
1. Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Segurtasunerako Kontseilua sortu da.
2. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua segurtasun gaietan konsultak egiteko eta parte hartzeko organo gorena da Nafarroako Foru Komunitatean.
3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:
- a) Administrazio publikoei aholku ematea, une eta toki bakoitzean segurtasun publikorako politika egokia diseinatu behar duten erakunde espezializatuei gomendioak emanez eta gizarteari barneko gertaera kolektiboei bereziki kontu eginez.
- b) Nafarroako segurtasun publikoaren egoera orokorra aztertu, ikertu eta ebaluatzea, herritarren segurtasunaren inguruoko erreferente adierazgarrienak oinarri harturik, portaren azterketak eta egoeren analisia sustatz, segurtasun indar eta kidegoetako kideen lanak euskarria izan dezan inguruabar zehatz eta baloragarrietan.
- c) Herritarren bizikidetza lasaia eragozten ahal duten eragileak zaintza, hala nola xenofobia, arrazakeria, kaleko indarkeria eta taldeen indarkeria edo antzeko gertaera, herritarren edo gizarteko balio funtskoen kalterako izan daitezkeen gatazka eta arriskuei aurrea hartzea.
- d) Nafarroako segurtasun egoera hobetzeko neurri orokorrak sustatzea eta segurtasun publikoarekin zerikusia duten administrazio publiko guztien zerbitzuak hobetzeko ekimenak bultzatzea.
- e) Foru Komunitateko segurtasun publikoa dela eta Nafarroako Gobernuak onesten duen urteko txostena ikustea.
- f) Indarra duten arauetan ezartzen zaizkion gainerako eginkizunak.

4. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari atxikiko zaio. Departamento horrek behar adinako laguntza teknikoa eman beharko dio bere eginkizunak egoki bete ditzan.

5. Kontseilua menpean duen departamentuak berariaz kontusail bat sortuko dio bere funtzionamenduari eusteko eta bere eginkizunetan bidezko diren jarduketak egiteko.

6. Herritarren Segurtasunerako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamenduz zehaztuko dira, foru dekretu bidez. Betiere, zein departamenturi dagoen atxikita, hango kontseilaria izanen du buru, eta honakoak kide izanen ditu:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariek.
- b) Nafarroako tiki entitateen ordezkariek.
- c) Gizarkeko interesak ordezkatzenten dituzten herritar erakunde edo entitateen ordezkariek.

Halaber, kontseilukide izaten ahalko dira Estatuko administrazioaren, epaileen eta fiskalen ordezkariek, haien erakundeeek hala era-bakitzent badute.

7. Nafarroako Segurtasun Kontseiluko buruak proposatu eta Kontseiluak hala erabakiz gero, herritarren segurtasunerako eskuaduek kontseiluak eratu ahal izanen dira. Horiek Kontseiluaren menpekoak izanen dira, eta udalerria baino eremu zabalagoa hartuko dute.

10. artikulua. Herritarren segurtasunerako tiki kontseiluak.

1. Udaltzaingoa duten udalerriek alkateek herritarren segurtasunerako tiki kontseiluen sorrera sustatu ahal izanen dute beren esku-menen esparruan.

2. Herritarren segurtasunerako tiki kontseiluek alkatea edo berak eskuordetutako pertsona izanen dute buru, eta horrek kontseiluko ki-deak honakoak arteetik aukeratuko ditu:

- a) Herritarren segurtasunarekin zerikusia duten udal zerbitzuak.
- b) Udalerririko bizilagun eta herritarren elkartea, edota entitateen, erakundeen edo elkarteen bestelako edozein ordezkariitzat.

3. Herritarren segurtasunerako tiki kontseiluek beren udalerriean segurtasun egoera hobetzeko neurriak aztertuko dituzte eta organo es-kudunei proposatuko dizkiete.

4. Herritarren segurtasunerako tiki kontseiluek berek eginen dituzte beren funtzionamendurako arauak.

11. artikulua. Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea.

1. Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea sortu da. Segurtasun publikoari lotutako gaietan (barne gaiak, justizia, garaioa, errepideak, trafikoa eta bide-segurtasuna, ikuskizun publikoak, gizarte zerbitzuak, adingabeen babesea, genero-indarkeria, hezkuntza, osasuna, ingurumena, ekonomia eta ogasuna, toki administrazioa eta abar) eskumena duten departamentuetako zuzendarri nagusiek osatzen dute.

2. Batzordeburua eta idazkaria segurtasun publikoaren arloko es-kumena duen departamentuok izanen dira. Batzordeburuak beste zuzendarri nagusi batzuei edo zerbitzu-zuzendariei deitu ahal izanen die Batzordeak esku artean dituen gaiek hala eskatzen dutenean.

3. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko departamentuen jarduketak koordinatuko direla bermatzea, segurtasun publikoan era-ginik badute.

b) Departamentu guztietan plangintza sustatu eta bultzatzea, segurtasun publikoari buruzko politika orokorra departamentuetako jarduketa sektorialetara eramateko.

c) Nafarroako Segurtasun Publikorako Plan Orokorra nola eta zenbateraino betetzen den zaintzea.

4. Batzordeak bilera egin beharko du Nafarroako Segurtasun Publikorako Plan Orokorra ezagutzeko. Horrez gain, Batzordeburuak haren bilerarako deia eginen du sei hilean behin, gutxinez.

5. Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordearen funtzionamendua, gainerako guztian, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen III. tituluko III. kapituluan kide anitzeko organoentzat ezarritakoari lotuko zaio.

12. artikulua. Nafarroako Segurtasun Batzordea.

Nafarroako Segurtasun Batzordea Foruzaingoaren eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen arteko koordinaziorako organo gorena da, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 51. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

13. artikulua. Tokiko Segurtasun Batzordeak.

1. Udaltzaingoa duten udalerriean Tokiko Segurtasun Batzordea eratu beharko da.

2. Batzorde hori lankidetza eta koordinaziorako organoa izanen da udalerrian diharduten polizia-kidegoentzat.

3. Tokiko Segurtasun Batzordeko burua udalerriko alkatea izanen da, eta batzordekideak ondokoak izanen dira:

- a) Herritarren segurtasunaren arloko zinegotzi eskuordea.
- b) Udaltzainburua.
- c) Foruzainburua edo berak eskuordetzen duen foruzain agintetuna.

d) Guardia Zibileko eta Polizia Kidego Nazionaleko buruak edo beraiek eskuordetzen dituztenak, Estatuko administrazioak hala erabakitzent badu.

4. Batzordeburuak eta batzordekideek nahi dituzten teknikariak eramatzen ahal dituzte Tokiko Segurtasun Batzordearen bileretara. Teknikari horiek hizpidea izanen dute, baina ez bodo eskubiderik.

5. Aztertu beharreko gaien arabera, Tokiko Segurtasun Batzordearen bileretara joan ahal izanen dira, hizpidearekin baina bodo eskubiderik gabe, entitate, erakunde eta elkarteen ordezkariek, bai eta herritarren segurtasunarekin zerikusia duten zerbitzuen arduradunak ere, batzordeburuak deitzut gero.

6. Tokiko Segurtasun Batzordeek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Udalerririko segurtasun publikoaren egoera aztertu eta baloratzea, eta beharrak nahiz eskura dauden baliabideak ebaluatzea.

b) Tokiko segurtasun plana prestatzen parte hartzea, haren betetza zaintza eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

c) Udalerririan diharduten segurtasun kidego eta zerbitzuen arteko lankidetza, koordinazio eta laguntzarako bideak eta prozedurak ezartzea.

d) Udalerririan diharduten segurtasun pribatuko zerbitzuak ezagutzea. Horretarako, zerbitzu horien arduradunei Batzordearen aurrera agerteko eskuat ahal izanen zaie.

e) Indarra duen antolamenduan ezartzen zaizkion gainerako eginkizunak.

7. Tokiko Segurtasun Batzordeak udalerrian diharduten polizia kidegoen lanak koordinatzeko mahai izendatu ahal izanen du, eta hura osatuko duten poliziaburuak izendatu, honako eginkizunak bete ditzan:

a) Batzordeak hartzenten dituen erabakiak betearazi.

b) Udalerririan diharduten segurtasun kidego eta zerbitzuen arteko informazio trukea bermatu.

c) Udalerririko segurtasun kidego eta zerbitzuen jarduketen arteko koordinazio operatiboa ziurtatu.

d) Segurtasun kidego eta zerbitzuen arteko lankidetza, koordinazioa eta laguntza hobetzeko proposamenak prestatu eta Batzordeari aurkeztu, udalerrian eraginkortasun eta efizientzia areagotze alderia.

8. Betiere, segurtasun indar eta kidegoek zeinek bere agintari organikoen aginduetara jardun beharko dute zuzenean.

III. KAPITULUA

Udaltzaingoak koordinatzea

14. artikulua. Koordinazioa.

Kapitulu honen ondorioetarako, koordinaziotzat hartuko da sistema egokiak zehaztea jarduketa irizpideak harmonizatu ahal izateko, elkarri informazioa emateko, langileen eta baliabide materialen hornidura homogeneoa izateko eta administrazio eskudunen arteko harremetan rako mekanismoak sortzeko, udaltzaingoeak parte hartzen duten segurtasun publikoko sistema osoan burutu behar dituzten ekintzen integrazioa lortze alderia.

15. artikulua. Eginkizunak.

1. Udaltzaingoen koordinazio gaietan Nafarroako Gobernuari da-gozkion eginkizunak segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak beteko ditu.

2. Udaltzaingoen koordinazioak honako eginkizun hauek bilduko ditu:

a) Udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduek bete beharreko oinarritzko arauak ezartzea.

b) Udaltzaingoen homogeneizazioa sustatzea honako arlo hauetan: baliabide teknikoa, uniformeak, defentsarako bitartekoak, ordainsariak eta kreditazio sistema.

c) Udaltzaingoetan sartzeko hautapenari eta oinarritzko prestakuntzari buruzko irizpideak finkatzea eta horretarako behar diren baliabi-deak ezartzea.

d) Udalzainen lanbide prestakuntzaren hobekuntza sustatzea, behar diren baliabideak ezarriz, hala nola prestakuntza ikastaroak, hobekuntzakoak, espezializazioak eta suspenekoak, Nafarroako Segurtasun Eskolaren bidez.

e) Datu-igorpen eta datu-base informatizatuen sistema orokorra sustatzea.

f) Ukituriko tiki entitateen artean izan litekeen lankidetza antolatzea, aldi baterako edo aparteko beharrizanak asetzeko.

g) Babes zibilaren arloko jarduketak koordinatzea.

h) Baterako jarduketak egitea bide segurtasuna hobetzeko.

- i) Udaltzaingoen eraginkortasuna hobetzeko behar diren azterlan eta neurriak sustatzea.
- j) Toki entitateei segurtasun publikoaren gainean aholku ematea behar den neurrian.
- k) Indarra duen legerian ezartzen den beste edozein.
3. Aurreko idatz-zatian zehaztutako eginkizunak betetzerakoan beti errespetatuko dira udalen autonomia eta udaltzaingoaren gain dituzten eskumenak.
4. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuari dagokio, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen kontseilariaren proposamenari jarraituz, 2. idatz-zatiko a) eta b) letratan zehaztutako eginkizunei buruzko arau orokorrak ematea, Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeak txosten egin ondoren; txosten horrek aldekoa izan beharko du, proposamenen xedea ordainsari osagarriak homogeneizatzea denean.
16. artikulua. Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea.
1. Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea ezzari da, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuaren era-kunde aholku-emaile gisa, udaltzaingoen koordinazioa dela-eta dagozkion eginkizunak bete ditzan.
2. Batzorde hori arestian aipatu departamentuari atxikia egon da. Batzordeko kideak honakoak izanen dira:
- a) Mahaiburua: segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilaria.
 - b) Buruordea: barne gaietan eskumena duen zuzendari nagusia.
 - c) Kideak: tokি entitateen hamar ordezkarri eta segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuaren hiru ordezkarri.
 - d) Idazkaria: batzordea atxikita duen departamentuko funtzionario bat, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe.
3. Toki entitateak ordezkatzen dituzten batzordekideak segurtasun publikoaren arloan eskumena duen kontseilariek hautatuko ditu udaltzaingo duten udalerriekorako ordezkarrien artek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturik.
- Segurtasun publikoaren arloko departamentu eskuduna ordezkatzen duten batzordekideak eta idazkaria departamentu horretako kontseilarik izendatuko ditu.
4. Bileretara joan ahal izanen dira, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe, beste administrazio publiko batzuen ordezkarriak, bai eta aztertu beharreko gaietan adituak diren teknikari edo aholkulariak ere, batzordeburuak eskaturik dei egiten zaienean.
5. Batzordeak berak eginen ditu bere antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak. Beterri bilera arruntak edo bereziak egin beharko ditu. Bilera arruntak urtean behin eginen dira, eta bilera bereziak batzordeko kideen heren batek eskatu edo batzordeburuak erabakitzent dueanen.
6. Batzordeak eginkizun hauetan izanen diru:
- a) Udaltzaingoak ukitzen dituzten xedapen orokorren proiektuei buruz derrigorrezko txostenak egitea.
 - b) Administrazio publikoetako organo eskudunei egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzea udaltzaingoen zerbitzuak hobetzeko eta haien baliabide teknikoak homogeneizatzeko.
 - c) Batzordeburuak eskatzen dion beste edozein gairi buruzko txostenak egitea dituen eskumenen esparruan.
 - d) Indarra duten xedapenei haren gain uzten dituzten gainerako eginkizunak.

IV. KAPITULUA

Segurtasun arloko plangintza

17. artikulua. Segurtasun planak.
1. Segurtasun publikorako planak antolamendu tresnak dira, beraientz bidez zehazten baita segurtasun kidego eta zerbitzuek nola jokatzen behar duten, segurtasun publikoa, eskubide eta askatasun publikoen erabilera baketsua eta pertsona nahiz ondasunen babesak ukitzen dituzten egoerei aurrea hartzeako edo erantzuteko orduan.
2. Segurtasun planak orokorrak edo bereziak izan daitezke, hau da, segurtasun egoera orokorrari edo segurtasun kontu zehaztei buruzkoak, eta udalerri baterako, udalerri batzuetarako edo Nafarroako Foru Komunitateko osorako egin daitezke.
18. artikulua. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra.
1. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorean segurtasun publikoaren arloko aurreikuspen orokorrak biltzen dira, Nafarroako Foru Komunitateko bizikidetza baketsua eta pertsona nahiz ondasunen segurtasuna ukitzen dituzten arrisku, jarduketa eta baliabideenak - baita segurtasun pribatuakoak direnenak ere-.
2. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra prestatzea segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuaren eginkizuna da. Plana egiterakoan kontuan hartu behar dira Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluaren gomendioak.
3. Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra onestea, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen de-

partamentuko kontseilariaren proposamenari jarraituz, eta Segurtasunerako Departamentu arteko Batzordeari eta Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluari erakutsi ondoren.

4. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorrak tokiko eta udalez gaindiko segurtasun planak egiteko gidalerroa eta irizpide teknikoak eza-rriko ditu, horien arteko koordinazioa eta integrazioa lortzeko, toki auto-nomia errespetatuz betiere.

19. artikulua. Planak onestea.

1. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariaren dagokio udalez gaindiko segurtasun planak onestea. Hark onespenaren berri eman beharko die planak eragiten dien tokiko segurtasun batzorde eta koordinazio nahiz parte-hartze organoei.

2. Alkatee dagokie tokiko segurtasun plana onestea beren udale-riaren. Gainera, plan bereziak onetsi ahal izanen dituzte, udalerriko segurtasun egoeraren arabera.

Alkateek onetsitako segurtasun planak segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariari igorri beharko zaizkio jakinaren gainean egon dadin, eta haien eraginpeko koordinazio eta parte-hartze organoei jakinazteko.

20. artikulua. Planen edukia.

1. Segurtasun planak egiterakoan aintzat hartu beharko dira goi mailako organoek segurtasun publikoaren arloan ezarritako politiken helburuak eta Nafarroako Segurtasun Plan Orokorean ezarritako gida-lerro teknikoak, bai eta parte hartzeko organoak gomendioak ere.

2. Segurtasun planek kontuan hartu beharko dituzte, bakoitzak bere eremuan, babes zibileko eta bide segurtasunerako planetan eta eragiten ahal dieten gainerakoetan dauden aurreikuspenak.

3. Segurtasun planen edukiak egitura homogeneoa izanen du. Gutxienez ondoko gai hauei buruzko argibide eta aurreikuspenak bildu beharko ditu:

a) Planaren eremuko segurtasun egoeraren azterketa.

b) Helburu orokoren eta lehentasunen definizioa.

- c) Helburuak lortzeko erabili ahal izanen diren bitarteko eta bala-bideak, segurtasun pribatuako barne.

- d) Burutu behar diren ekintzak; prebentzioa helburu nagusi duten ekintzak eta gertaerei aurre egin edo erantzuteko jarduketak bereizi beharko dira.

- e) Ekintza horien lehentasun ordena, aplikazioaren egutegia, ja-rraipen eta ebaluaziorako metodo egokiak eta indarraldia.

V. KAPITULUA

Administrazio publikoen arteko harremanak

21. artikulua. Printzipioak.

Segurtasunaren arloko eskumenak dituzten administrazio publikoek ondoko printzipioei eutsi behar diete elkarren arteko harremanetan:

- a) Erakundeen leialtasuna, eta gainerako administrazioei dagozkien eskumenak erabat errespetatzea.

b) Elkarri informazioa ematea.

- c) Osagarritasuna, lankidetza, koordinazioa eta laguntza, jarduketak egitean eta zerbitzuak ematean.

22. artikulua. Informazio estatistikoak.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Sistemaren bidez eta indarra duen araudiarekin bat, estatistikako jarduera sustatu behar du, Nafarroako segurtasun publikoaren egiazko egoera ezagutu eta aztertzeko informazio nahikoa eta koherentea izateko, beste adminis-trazio publiko batzuetako informazio estatistikoekin erakarri ahal izateko eta herritarren segurtasunarenkeri zerikusia duten administrazio publikoko eremuetan erabakiak hartzeraoan informazio hori erabili ahal izateko.

2. Segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuak urtero txostenetan eginen da Nafarroako Foru Komunitateko barne-segurtasunari buruz, Nafarroako Estatistika Planak arautzen dituen estatisti-ka-jardueretan oinarritua. Txosteni hori agintari eta organo interesatuei eman beharko zaie; bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeari, Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeari, Segurtasunerako Departamentu arteko Batzordeari, tokiko segurtasun batzordeei eta herritarren segurtasunerako kontseiluei.

23. artikulua. Polizia-informazioak.

1. Polizia Datuen Tratamendurako Zentroa sortu da, polizia-zerbi-tzun eginkizunak betetzeko behar diren informazioak bildu, gorde, landu, sailketa eta kontserbatzeko.

2. Polizia Datuen Tratamendurako Zentroa segurtasun publikoaren arloko gaietan eskumena duen departamentuaren menpekoia izanen da eta haren egitura eta funtzionamendua bat etorriko dira datu pertso-nalen babesari buruzko Lege Organikoan eta indarra duten gainerako legeetan xedatutakoarekin.

3. Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamen-tuak polizia-informazioen sistema bateratua kudeatu eta mantendu beharko du. Udaltzaingo bakoitzak sistema horretan sartzeko eta parte hartzeko bete beharreko baldintzak alde biko atxikien hitzarmenean

arautu beharko dituzte arestian aipatu departamentuak eta kasuan kasko udalak, kontuan izanik datuak eskuratu, konsultatu eta trukatzeko protokoloak eta departamentuko titularrak ezartzen duen aplikazio informatikoaren erabilera.

4. Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak poliziaren intereseko informazioaren trukea sustatu beharko du, bai Foruzaingoaren eta bestelako segurtasun indar eta kidegoen arteko trukea eta bai Europar Batasunean polizien lankidetza eta koordinazioa antolatzeko eskumenak dituzten erakundeekoa ere.

5. Nafarroako Foruzaingoko eta udalzaingoetako agintari eta ki-deak beharturik egon dira beren eginkizunetarako beharrezko duten informazioa elkarri ematera, gaia dela-eta bidezkoa izan daitekeen isilpea eragotzi gabe eta lege aplikagarriak erabat errespetatuz, bereziki datu pertsonalen babesari buruzkoak.

6. Udalzaingoa duten toki entitateek segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuari ondoko informazioak bidali beharko dizkiote urtero, lehen hiruhilekoan, departamentu horrek ezartzen dituen irizpide bateratuen arabera prestatuak:

- a) Aurreko urtean emandako zerbitzuen oroitidakzka.
- b) Delitu, hutsegite eta denetariko gorabeheren erregistro-datuak.
- c) Giza baliabide eta baliabide materialen dotazioak.

24. artikulua. Lankidetza hitzarmenak.

1. Nafarroako Gobernuak, segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuaren bitarbez, lankidetza hitzarmenak sinatu ahal izanen ditu gainerako administrazio publikoekin, segurtasun arloan hiek dituzten eskumenen eremuetan, ondoko xede hauet betetzeko:

a) Zerbitzuetan, bereziki polizia-zerbitzuetan, koordinazioa eta lankidetza antolatzeko moduak eta prozedurak zehaztea, eta segurtasunaren esparru guztietan politika publikoak garatzeko jarduketak ere bai.

b) Udalzaingorik ez duten udalei Nafarroako Foruzaingoak laguntza ematea, udalzain zerbitzuak eginez.

c) Udalzaingoa duten udalei Nafarroako Foruzaingoak laguntza ematea aldi baterako edo berariazko zerbitzuak eginez, garrantziagatik edo espezializazioagatik beren baliabideekin ezin bete dituztenean.

d) Toki berean diharduten eta partekatuak diren polizia-zerbitzuen jarduna eta baterako ekintzak planifikatzea.

2. Lankidetza hitzarmenetan batzordeen edo lan taldeen eraketa aurreikusi ahal izanen da aurreikusitako jarduketak burutzeko, bai eta zainketa eta kontrol organoen eraketa ere. Organo horiek, hitzarmena sinatzen duen udalak udalzaingoa baldin badu, tokiko segurtasun batzordeei lotu behar zaizkie.

Deialdiaren xede den lanpostuan aritzeko gaikuntzarik ematen ez duten titulazio ofizialak ez dira merezimendutzat hartuko.

Atal honetako puntuazioa 19,8 puntu artekoa izanen da.

3. atala. Euskaraz jakitearen balorazioa:

Eremu euskalduneko lanpostuak eskuratzeko, euskaraz jakitea merezimendu kualifikatu gisa baloratu behar denean, euskaraz jakiteagatik gehienez ere ehungo 10 gehituko zaio frantseset, ingelesez edo alemanez jakiteagatik eman daitekeen gehieneko puntuazioa.

Eremu mistoko lanpostuak eskuratzeko, euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratu behar denean, frantseset, ingelesez edo alemanez jakiteagatik eman daitekeen gehieneko puntuazioa baino 100eko 5 gehiago ematen ahalko da gehienez ere euskaraz jakiteagatik.

Bi kasu horietan, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekoa den besteren bat ez badu, gehienez lor daitekeen puntuazioaren bostena emanen da Hizkuntza Eskola Ofizial batean gainditutiko maila bakoitzeko eta, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan, gehieneko puntuazioaren hamabirena, gainditutako urrats bakoitzeko.

F0609131

1.3. BESTELAKO XEDAPENAK

1.3.2. Kontratacio administratiboa

ERABAKIA, 2006ko ekainaren 26ko, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hartua, Nafarroako Parlamentuaren egoitzaren garbiketarako lehiaketa publikoaren akatsak zuzentzeko.

Legebiltzarreko Mahaiaren ekainaren 26ko erabakiaz, akatsak zuzendu dira aipatu lehiaketako klausula administratibo eta teknikoen orrian. Lehiaketako iragarkia 2006ko ekainaren 16ko 72. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Horrenbestez, lizitazioaren gehieneko aurrekontua zuzendu da, eta eskaintzak aurkezteko beste epe bat zabaldu da –aurreko iragarkiko epea baliorik gabe utzi da–.

–Lizitazioaren gehieneko aurrekontua: 261.000 euro. (BEZA barne).

–Eskaintzen aurkezpena: Eskaintzak aurkezteko epeareen amainera: iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamarunetik kontatzen hasita hogeita zapigarraren eguneko 12:00etan; epeareen azken eguna baliogabea bada (larunbata, jai eguna edo igandea), hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Iruñean, 2006ko ekainaren 26an.–Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin.

F0610876

1.3.3. Nahitaezko Desjabetzapenak

ERABAKIA, 2006ko ekainaren 12ko, Nafarroako Gobernuak hartua, Buñuelgo Udalaren Buñuelgo ingurabidea eraikitzeko proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena, nahitaezko desjabetzea egiteko.

Buñuelgo Udalak 2005eko azaroaren 23an egindako osoko bilkuraren hartutako erabakiaren bidez, aipatutako proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri ziren hamabost egunez.

Jendaurreko aldiari epea bukatuta, Buñuelgo Udalak 2006ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuraren hartutako erabakiaren bidez, aipatutako proiektua behin betiko onetsi eta aurkeztutako alegazioak ebatzi ziren, ebazpen horren xedapen zatian adierazitakoaren arabera.

Obrak garrantzitsu eta presakoak dira 2006ko irailaren 1a baino lehen amaitu behar baitira, Nafarroako Foru Komunitateko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Buñuelgo Udalaren artean sinatutako Lankidetza Hitzarmena bete ahal izateko. Hitzarmena Nafarroako Gobernuak onetsi zuen, 2006ko maiatzaren 15ean hartutako erabakiaren bidez.

Nafarroako Gobernuak, Buñuelgo Udalak alegatutako arrazoia ikusirik, bidezkotzat jo du desjabetzeak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adieraztea.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Eraientza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 57.b) artikuluak emandako eskumenak erabiliz, Nafarroako Gobernuak, Toki Administratzioko kontseilariak proposaturik,

ERABAKI DU

1. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearren 52. artikulan xedatutakoari jarraituz, Buñuelgo Udalaren Buñuelgo ingurabidea eraikitzeko proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adieraztea.

2. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an.–Nafarroako Gobernuko kontseilari eta idazkaria, Javier Caballero Martínez.

F0610130

1.3.4. Dirulaguntzak eta bekak

114/2006 EBAZPENA, maiatzaren 26ko, Garraio zuzendari nagusiak emana, 2006. urtean Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko deialdia onesten duena, autobus geltokietan markesinak eraiki eta instalatzeko inbertsioak zati batean finantzatzeko.

Bidaiaien garraio zerbitzu publikoa eta segurtasuna hobetzea ahalbidetzen duten elementuetako bat Nafarroako herri ezberdinaren autobusetarako ezarririko geltokietan markesinak eraiki eta instalatzea da, eta horregatik, dirulaguntzak ematea arautu behar duten irizpideak ezartzen dituen deialdia onetsi behar da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak dirulaguntza publiko guztiak gobernatzen ditu eta bertan ezartzen dira principioak, irizpideak, eskumenak eta eginbeharrok, dirulaguntzak eman, kudeatu, itzuli, jarraitu eta kontrolatzeko bideak, eta arau-hauste eta zehapenak.

2006ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrein buruzko abenduaren 29ko 18/2005 Foru Legeak "Gelditzeko bideak eta markesinak" izeneko kontusaila eman du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1. artikuluko d) idatz-zatiak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. 2006. urtean Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko deialdia onesta, autobus geltokietan markesinak eraiki eta instalatzeko inbertsioak zati batean finantzatzeko. Ebazpen honetako I. eranskinean gehitako oinarriek eta II. eranskinean xedatutakoak gobernatuko dute deialdia.

2. 103.000 euroko gastua onesta, 2006ko gastuetarako aurrekontuko "Gelditzeko bideak eta markesinak" izeneko 630000-62110-7609-441100 kontusailaren kargura.

3. Ebazpen hau eta bere eranskina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, eta Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuari, Garraioaren Antolamendu eta Kudeaketarako Zerbitzuari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan duen kontu-hartzaleari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzenat.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 26an.–Garraio zuzendari nagusia, Jesús María Odériz Echevarría.

I. ERANSKINA

2006. urtean udalei markesinak eraiki eta instalatzeko inbertsioak zati batean finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak

1.–Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea 2006. urtean Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko araubidea arautzea da, markesinak eraiki eta autobus geltokietan instalatzeko inbertsioak zati batean finantzatzeko; horrela, errezipido bidaiaien garraio publikoko erabilzaileei ematen zaien zerbitzuaren baldintzak hobetuko lirateke.

Nolanahi ere, deialdi honen oinarriean aipatu markesinen instalazioak deialdian ezarritakoari jarraitu beharko dio.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira dauden markesinak konpondu, berritu, mantendu eta zaintzea edo beste leku batera eramatea xede duten obra eta jarduera guztiak.

2.–Onuradunak.

Dirulaguntzen araubidea horri heltzen ahal izanen diote markesinak eraiki eta instalatu nahi dituzten udalek, obrak kontratatzeko espeditore 2006ko ekitaldian hasten bada, eta markesinak 2006ko abenduaren 1aren aurretik instalatzera badira.

3.–Aurreikusitako laguntzak.

Deialdi honetan araututako laguntzak edo dirulaguntzak markesinak eraiki eta instalatzeko behar diren inbertsioak zati batean finantzatzeko erabiliko dira osorik. Dirulaguntza markesina eraiki eta instalatzek sorturiko gastuaren %64koa izanen da, eta nolanahi ere, laguntza hori ezin izanen da 10.300 eurotik gorakoa izan markesinako.

Onarturiko eskaera kopuruak eta erabilgarri dagoen aurrekontuko esleipenak horretarako bidea ematen badute, markesina eraiki eta instalatzek sorturiko gastuaren %90erainoko dirulaguntza ematen ahal izanen da, nahiz eta kopuru hori ezin izanen den 14.520 eurotik gorakoa izan markesinako.

4.–Eskaerak eta eskatutako agiriak aurkezteko epea.

4.1. Eskaerak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamenduko Erregistroan (San Ignazio etorbidea 3, beheko solairua, Iruña) edo ekainaren 24ko 137/2002 Foru Dekretuan zerrrendatutako Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorreko gainerako bulegoetako edozeinetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak aipatu edozein lekutan aurkezten beharko dira, hilabeteko epean, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita. Postetxeetan aurkezten diren eskaerak kartazal irekietan sartuko dira, lehenbiziko orrialdeko goiko aldean onartu zeneko eguna eta abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan, posta zerbitzuak arautzen dituen horretan, aipatzen diren gainerako zehaztapenak adieraz daitezten.

4.2. Eskaerak udaleko alkateak sinatu eta Garraio Zuzendaritza Orokorrera bidaliko dira. Eskaerekin bat, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Markesina eraiki eta instalatzea burutzeko aurrekontua, eta markesinaren oinarritzko proiektuari buruzko aurrekontu eta guztiko txosten eguneratua, arloko teknikari eskudunak sinaturikoa. Horiek batera, eraiki eta instalatu beharreko obra agertzen duen agiri grafikoa erantsi beharko da, obra aztertu eta baloratzeko.

Oinarrizko proiektu horrek deialdi honetako II. eranskinaren 1. eta 3. atalean ezarritako baldintzak bete eta instalatu nahi den markesina modeloa adierazi beharko du.

b) Aurreikusitako finantzaketari buruzko udal erabakia eta eraiki eta instalatzeko obrak burutzeko aurreikusitako epea agertzen dituen ziurtagiria, eta hala denean, aldi berean finantzatzen duten erakundeena. Erekunde bakoitzak aurreikusi dituen kopuruak banakatu beharko dira. Ziurtagiri horretan bertan zera agertuko da: diruz lagundutako eraiki eta instalatzeko obra burutzeko asmoa, hori finantzatzeko konpromisoa bere gain hartuta, baita aurreko atalak aipaturiko txosteneko aurrekontuaren gainean sor litezkeen gainkostuena ere, eta, beste erakunderen batek aldi berean finantzatzen badu, organo eskudunaren berariazko finantzaketa hitzarmena.

c) Markesina instalatzeko erabiliko diren lurren lutzati-zedula. Udal lurren jabea izan ezean, gutxienez 20 urterako lagapen agiriaren fotokopia konpultsatua ere aurkeztu beharko da. Aipatu lursail-zedulan geltokiaren eta markesinaren kokapen zehatzat zehaztuko da.

Udal eskatzaileak erabilera-eskubidea bakarrik badu, lurren jabeak eraiki eta instalatzeko obrak egiteko berariazko baimena ematen duela adierazten duen agiria ere aurkeztu beharko da, erabilera-eskubidearen iraupena gutxienez 20 urtekoa dela zehaztuta.

Markesinaren kokapenak deialdi honetako II. eranskinaren 2. atalean jasotako autobus geltokiak zuzen kokatu eta seinaleztatzeko gomendioak bete beharko ditu.

d) Garraio zerbitzu publikoak egiten dituen garraio erregularreko, edo eskola edo laneko garraioko enpresen zerrenda, eta egunean egiten diren geldialdien kopuru, bai eta autobusa egunero erabiltzen ahal duten pertsonen batez besteko kopurua ere.

e) Eskatzaileak bere eskaeraren indargarri aurkeztu nahi dituen beste dokumentuak, deialdi honetan aipatzen diren irizpide eta adierazleen araberakoak.

4.3. Agiriek jatorrizkoak edo notario nahiz administrazio bidez kautotutako kopiak izan beharko dute.

4.4. Adierazitako agiriak aurkezteko orduan akatsak atzematen badira, puntu guztieta betea ez badago, edo eskaera baloratzeko behar diren alderdi guztiak behar adina ez badira frogatu, atzemandako akatsa zuzen dezala eskatuko zaio udal eskatzaileari. Horretarako, 10 egun balioduneko gehieneko epea izanen du, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

5.–Eskaerak hautatzea eta balorazio-irizpideak.

5.1. Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak aurkeztutako agiriak aztertu eta baloratuko ditu 5.2 oinarrrian ezarritako irizpideen, lehentasunen eta deialdi honetako II. eranskinen xedatutakoaren araberak, Garraio zuzendari nagusiarri dirulaguntzak emateko txosten eta proposamena egiteko, eta horren ondorioz, horrek dirulaguntzen deialdia ebazteko.

Eskaerak ahalik eta hobekien baloratzeko, Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak txosten osagarri ez lotesleak eskatzen ahalko dizkie Plangintza, Segurtasunaren Koordinazio eta Trafiko Zerbitzuari, trafiko eta bide segurtasunaren inguruan, eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiarri, markesinen kokapenean berehala edo epe luzea eragiten ahalko duten proiektu, egite edo ustiatze fasean diren bide sareko jarduketak egitearen inguruan.

Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak proposaturik, deialdi honetan araututako dirulaguntza ukatzen ahalko da, deialdiko II. eranskinaren 2. atalean adierazitako gomendioak betetzen ez badira.

5.2. Udalen eskaerak hautatuko dira, erabilgarri dagoen diru-esleipena muga izanda eta hurrengo lehentasun-irizpideak kontuan hartuta:

1. Lehenengo lehentasun-ordena.

–Markesinadun geltokirik ez duten biztanle-entitateetan (herria, kontzejua, leku, ...) markesinak eraiki eta instalatzea.

–Bidaiaien beste garraio mota batzuen (eskolakoa, lanekoa, pri-batua...) aurrean, bidaiaien garraio erregularreko autobus geltoki bat-teen markesinak eraiki eta instalatzea. Garraio erregulararra eta eskolakoa batzen dituzten geltokietarako lehentasuna, beste aukera batzuen aurrean.

–Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Toki Erakunde arteko lankidetza hitzarmenatetan bidaiaien garraio erregularraren emakidak aldatu edo indartzeko zehaztu diren geltokietan markesinak eraiki eta instalatzea.

2. Bigarren lehentasun-ordena.

–Markesina erabil dezaketen pertsonen kopurua, instalatuko den biztanle-entitateko biztanle kopuruaren eta markesinaren kokapenean gelditzeko baimena duten bidaiaien garraio erregularreko zerbitzuen kopuruaren arabera, astelehenetik ostiralera norantza bakarrean zenbatuta.

–Baldintza meteorologiko txarrak dituzten herriean markesinak instalatzea, ahal dela altuera eta plubiositate handienetan irizpideei jarraikiz (eskura dauden azken bi urteetakoak).

Deialdi honen lehenengo lehentasun-ordenan sartu gabeko markesinak eraiki eta instalatzea diruz laguntzen ahal izanen da, lehenengo lehentasun-ordenako eskaerak bete ondoren eta betiere behar adineko diru-esleipena badago.

Bi eskaeraren arteko berdinaketa ematen bada aurreko lehentasun-irizpideak ebaluatzean, eta aurrekontuan behar adina dirurik ez badago, lehentasuna izanen dute aurrekontu ekonomikoagoa duten eskaerek. Berdinaketa iraunez gero, biztanle gutxien dituen udalak izanen du lehentasuna.

6.–Ebazpena.

6.1. Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak txosten eta proposamena egin ondoren, Garraio zuzendari nagusiak ebazpena eman eta hora jakinaraziko du, bi hilabeteko epean eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe hori bukatuta, eskaera ezetsi dela ulertuko da. Hala ere, Administrazioa beharturik dago ebazpena ematera.

6.2. Emakidaren ebazpenaren arrazoia emanen dira, eta bertain dirulaguntzaren zenbateko eta ordaintzeko modua agertuko dira. Era berean, eskatzaile guziei jakinaraziko zaien.

6.3. Dirulaguntzaren zenbateko 2006ko gastuetarako aurrekontuko "Gelditzeko bideak eta markesinak" izeneko 630000-62110-7609-441100 kontusailean xede horrekin agertzen den kredituaren diru-kopurua eta deialdi honen 3. oinarrrian ezarritako mugara baldintzatuta, eta hala denean, mugatuta egonen da.

Dirulaguntzak 2006ko ekitaldi ekonomikoaren kontu emateak ez du inolako eskubiderik ematen ondorengo ekitaldietan ere dirulaguntzak hartzeko.

7.–Dirulaguntzen aldaketa eta bateragarritasuna.

7.1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak emakidaren ebazpena aldatzea ekarriko du.

7.2. Deialdi honen bidez ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira onuradunek administrazio honetatik, beste administrazio publiko batzuatik edo nazioko zein nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuatik edo partikularrengandik jasotzen dituzten dirulaguntzakin.

Laguntzen onuradunek Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuari jakinarazi beharko diote aldi berean beste dirulaguntza batzuk jasoko dituztelako. Laguntza guztien zenbateko osoa ez da izanen, inola ere, onuradunek egin beharreko eraiki eta instalatzeko obren kostua baino handiagoa. Kasu horretan, deialdi honek emaniko dirulaguntza murritzuko da, jasotako laguntzen zenbateko osoa markesina eraiki eta instalatzeko obren benetako kostua baino handiagoa izan ez dadin.

8.–Dirulaguntzaren onuradunen betebeharrak.

Onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 9. artikuluan ezarritako beharkizunak bete beharko dituzte; hauek, bereziki:

8.1. Dirulaguntza hauek jasotzen dituzten udalek deialdi honen 3. oinarrrian aipaturiko xederako erabili beharko dituzte eman zaizkien fondoak.

8.2. Markesinak zaindu, garbitu, mantendu, konpondu edo ondoren berritzeko lanak markesinen jabe diren udalen kontu eta kargura gauzatuko dira.

8.3. Deialdi honen xede diren markesinak instalatzeko laguntzak jasotzen dituzten udalek ezin izanen dituzte eraisten edo beste leku batera eramaten instalatzen direnetik hurrengo 5 urteetan, gutxienez, Garraio Zuzendaritza Nagusiak aurretik horretarako baimena eman ezean.

8.4. Dirulaguntza jasotzen duten udalek Garraio Zuzendaritza Nagusiak eskatutako egiaztapenak eta agiriak onartu eta eman beharko dituzte.

8.5. Garraio Zuzendaritza Nagusiak, Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzua bitarteko, zilegi izanen du obrak ikus-katzeko nahi adina bisita tekniko egitea obrak irauten duen bitartean eta dirulaguntza hartzen duen erakundearena beharturik dago obretara sartzen uzterra eta obraren gaineko edozein dokumentazio ematera.

9.-Dirulaguntza zer xedetarako eman den egiaztatzea eta dirulaguntza ordaintzea.

9.1. Markesina eraiki eta instalatzeko obra amaitu ondoren, dirulaguntza jasotzen duten udalek hurrengo agiriak aurkeztu beharko dituzte 2006ko abenduaren 3a baino lehen, emaniko dirulaguntza ordaintzeko asmoz:

a) Udaleko idazkariaren ziurtagiria, markesina eta informazio zutabea deialdi honetako II. eranskinaren 1. atalean adierazi bezala instalatu direla adierazten duena. Horrez gain, markesina eraiki eta instalatzeko egindako gastuaren ordainagirien zerrenda aurkeztuko da. Obrak Administrazioak burutzen baditu, horretarako egindako gastuaren fakturen eta beste frogagiri batzuen zerrenda aurkeztuko da.

b) Ondoko datuak zehazten dituzten agiriak: obraren adjudikazio data, adjudikazioa eman zaion enpresa, bera identifikatzeko datuekin (izena, IFZ, helbidea, telefono-zentroa, posta kodea eta herria) eta adjudikazioaren zenbatekoa zehazturik.

Administrazio bidez egiten diren obren kasuan, agiri horien ordez aurkeztuko da udaleko organo eskudunak hartutako erabakia, horretan obrak sistema honen arabera egin direla adieraziko dela.

c) Markesinaren instalazio eta kontratazioa gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik goitikoa bada, onuradunak ardurapeko adierazpena aurkeztu beharko du, hornitzalea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu dela azaltzeko.

9.2. Obrak diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri burutuko dira. Dirulaguntzaren xede den inbertsioaren kostuaren gainean hasieran aurreikusi gabeko gehikuntzak sortzen dituzten aldaketak onuradunak ordainduko ditu.

9.3. Obren bukaerako kostua diruz lagundutako aurrekontuko baino txikagoa bada, dirulaguntzaren zenbateko murriztuko da, kostua jaitsi den proportzio berean, deialdi honen 3. oinarrian aipatutako ehu-nekoia ez gainditzeke.

10.-Ez-betetzea.

Deialdi honen oinarrietan ezarritakoa betetzen ez bada, datuak falt-sutzen edo xedeak aldatzen direla ikusten bada, dirulaguntza galdu egiten da, eta ordu arte jasotako kopuruak itzuli beharko dira, alde batera utzi gabe antolamendu juridikoan aurreikusi diren gainerako erantzukizunak.

Deialdi honen oinarrietan aurreikusirik ez dauden gaietan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen oro har ezarritako aplikatuko da.

11.-Arau-hausteak eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. titulua hartuko da aintzat.

12.-Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Emandako dirulaguntzak eta onuradunen zerrenda Garraio eta Telenkomunikazio Zuzendaritza Nagusiaren web orrian argitaratuko dira.

13.-Errekursoak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta bere aplikazio egintzen aurka, toki erakundeek zilegi izanen dute administrazioarekiko auzi-errekursoa jartzea. Iruñeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu edo hala denean, bidezko egintza jakinarazi eta biharmanetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 28/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten den moduan eta epean, Nafarroako Gobernuaren aurrean aldez aurretik errekerimendua egiteko aukera galarazi gabe.

II. ERANSKINA

Geltokiek, markesinek eta beren kokapenak bete beharreko baldintzak eta betekizunak

1.-Markesina guztieta rako derrigorrezko elementua.

Informazio zutabea.

Bi aldeetatik ikusgai dagoela markesinen ondoan jartzen den zutabea da. Batez ere, bi zeregin ditu:

1. Autobus geltokia dagoela adieraztea.

2. Autobusen ordutegiari buruzko informazioa, eta hala denean, udalak interesarritzat jotzen dituen beste informazio batzuk ematea.

Gutxi gorabehera 3,25 metroko altuera, 0,5 metroko diametroa eta 1,5 milimetrotako lodiera dituen zutoin zilindrikoa dauka (burdinazko tutua). Zutoin horrek 3 zati bereizi ditu:

1. Goiko zatia: metro 1eko altuera du, atzoko aldea gorria da, eta letrek marrazkia eta testua dituzte Nafarroako Gobernuaren anagrama eta logotipoaren arabera. Diruz lagundutako obren informazio euskarriarriko diseinuarri buruzko arauetan ezarritako testua ere egonen da, Nafarroako Foru Komunitatearen identitate korporatiboaren programaren arabera.

2. Erdiko zatia: alboko beirazko lau xafia gardinez osatzen da. Xafialak aroztegi metalikoko profilen gainean daude. Profilak 40 x 40-ko lau profil metalikoei lotuta daude, eta informazio zutabearen goiko eta beheko aldeen arteko lotura eta euskarri gisa balio dute aldi berean. Lau xafletako bat birakaria da bertikalki, barrura sartzeko, eta giltzarrapo batekin edo antzeko zerbaiten xten da. 1,25 metroko altuera du. Barnean euskarri biratzailea du, horretan bidaiaiaren autobus garraioko zerbitzuen ordutegiari buruzko informazioa edo beste informazio interesgarriren bat jar daiteke.

3. Beheko zatia: metro 1eko altuera du, metalezko da, gris kolorekoa, eta lurreko ainguraketa sistemak ditu.

2.-Markesinak instalatuko diren autobus geltokiak zuzen kokatu eta seinaleztatzeko gomendioak.

a) Geltokian autobuserako erreia egotea. Irisgarritasuna.

Gutziz ezinezkoia izan ezean, geltokia eta markesina galtzadatik kanpoko errei batean jarriko dira. Errei eta galtzadaren artean autobus batek ondoko maniobrak egiteko beste distantzia egonen da: gelditu, bidaiaiaren hartu, bidaiaiaren utzi eta abiatzea, zailtasunik eta arriskurik gabea.

Kokapenak erabiltzaileen, eta bereziki, mugikortasun murriztuko pertsonen irisgarritasuna bermatu behar du, trafikoaren fluxua ahalik eta gutxien eraginda.

b) Kokapena eta ikuspena.

Markesina eta autobusetarako geltokia tarte zuzenetan kokatu beharko dira. Markesinak ez dira inoiz instalatuko kurba batean, kurba baten amaieran eta sestra-aldaketen, ezta behar bezalako ikuspena ez duten lekuetan ere, eta betiere salgaien zamalanetik urrun.

Geltokia, markesina eta bere seinaleztapen bertikala argi ikusi behar dira, hainbat antzinatea eragozten duen elementurik gabe, hala nola: zuhaitzak, hiri altzariak, aparkatutako ibilgailuak, ...

Ez da markesinari instalatuko haien kokalekuan eragina izan dezaketen hirigintza jarduerak egitea aurreikusiten den eremuetan.

c) Zebra-bidea edo oinezkoen pasabidea.

Komeni da markesina eta geltokia dagoen zebra-bide baten ondoan jartzea. Bestela, markesinatik hurbil dagoen zebra-bidea seinaleztatzen saiatuko da, behar bezala seinaleztatzen dena eta geltokiaren aurrean-zirkulazioaren noranzkoan- dagoena, erabiltzaileak autobusaren atzetik gurutzatzea eragozteko, horrek ikuspenik ez izatea ekarriko luke eta.

Oinezkoen pasabideak edo zebra-bideak kalitatezko pintura distritsuaz eta ez labaingarriaz seinaleztatzea gomendatzen da, euriaren duenean motor-gidariak ez erortzeko eta ibilgailuek irrist ez egiteko. Seinaleztapen bertikal zuzena egunez zein gauez edo egoera meteorologiko txarretan ikusten ahal izanen da.

d) Argiztapena.

Hirigunean edo sare elektrikoa hurbil daukaten lekuetan, argi egoikiek instalatuko dira markesinan hobeto ikusteko, baita seinaleak ere ordutegiari buruzko informazioa ikusteko, itsualdi deserosoak saihestuta.

e) Kontserbazioa.

Udal bakoitzak ondoko ardurak hartuko ditu bere gain:

-Bidaiaiaren garraio enpresei markesina dagoela eta gidarien jardute-araauak zeintzuk diren adieraztea, maniobrak erraztu eta istripu arriskuak saihesteko asmoz.

-Markesina garbitu eta zaintzea, hori txarto ez erabiltzen saiatuta eta kalteren bat sortu duen istripuaren datuak idatzita, azkar eta behar bezala konpontzeko asmoz.

-Bandalismo ekintzak gertatzen direnean beharrezko zaintze-neurriak berehala hartza, bereziki, kristalak ordezkatzen.

3.-Dirulaguntzaren xede diren markesinen lehentasun-modeloak.

1. modeloa: zurezkoa.

Modelo ezagunena da, Nafarroako herri gehienetan instalatu da eta. Honakoek osatzen dute markesina hori:

Burdina galbanizatzuk eta aire libreko iraunkortasuna handitzeko trataturiko pinu gorriko zurezko egitura hibridoa.

Estalkia eta bere euskarriak zur geruzatu lauzkoak dira. Goi-priesioetan eta goi-tenperaturaren gogortutako zuntz eta erretxinen nahasketak osatzen du barnetik, 13 milimetroko lodiera du, baita bi aldeko isurialde handia ere, ura eta elurra azkar husteko. Guztira, 10 bat metro karratuko azalera estalia dago.

Itxura bertikalak. Alboko bi horma eta hondoko bat: horiexek ere zur geruzatzukoak dira, eta aluminiozko arrastelen gainean daude, hondoko hormak hiru metro ditu, alboko hormek 1,5 metro dituzte, eta altuera 2,2 metro ingurukoa da.

Hondoko horman zurezko bankua jartzen da, 2,4 x 0,4 metrokoa, burdina galbanizatzuk metalezko ainguraketen gainean.

Zolata hormigoizko azalera lauak, 6,5 x 3,6 metrokoak (23 m², gutxi gorabehera) osatuta dago, eta 13 cm-ko lodiera du. Legar trinkotuzko geruza baten gainean dago, egitura, bankua eta zutoina edo informazio zutabea bertan ainguratuta daudela. Aldapa txikia izanen du kanporantz, putzuak osatzea eragoztekoei asmoz, eta ez du inolako eskailerarik izanen, gurpil-aulkian doazen minusbaliautak edo mugikortasun murriztuko pertsonak sartzen ahal izan daitezen.

2. modeloa: harrizkoa.

Markesina modelo hori ez dago oso zabalduta: hiriguneetan eta batez ere harrizko ingurunea duten herriean instalatu da. Honakoek osatzen dute markesina hori:

Egitura lurrerako egokia den zimendatzearen gainean dauden harrizko horma bertikalek osatuta dago.

Estalkia: zeramika kurbatuzko teilak, arabiar motakoak edo antzezoak. Aldapa %35ekoa da, porlanezko morteroan amaitzen dena, aire zabaletik babesteko lixatu eta bernizatu diren gaztainondo edo haritzeko zurezko habexen eta zur mihiatzatzko oholtzaren gainean, eta gutxieneko altura 2,20 metrokoa da.

9 metro karratuko azalera erdi itxia dago, guztira 24 metro karratu dituen estalkiarekin azpian.

Itxura bertikalak bistako harrizko hormak dira, guztiz perpendikularrak diren angelu izkinak dituztenak. Azalera 24 metro karratuko da, gutxi gorabehera, eta 0,45 metroko lodiera dute. Alboko hormek 2,45 metroko oinplanoa dute; hondoko hormak, berriz, 5,4 metrokoa.

Hondoko horman gaztainondo edo haritzeko zurezko bankua jarriko da (estalkirako aukeratu den zur motaren arabera), 20 x 5 cm-ko sek-

zioa eta 4,5 metroko luzera dituena, eta hormen harri berdinaz egindako hormatxoari lotuta dagoena.

Zolata: 5 cm-ko batez besteko lodiera duten harri naturalezkoi lauzak, harrien kolore berdina duen hareaz oraturiko porlanezko morteroan amaitzen direnak.

Aldapa txikia izanen du kanporantz, putzuak osatzea eragoztekoei asmoz, eta ez du inolako eskailerarik izanen, gurpil-aulkian doazen minusbaliautak edota mugikortasun murriztuko pertsonak sartzen ahal izan daitezen.

4.-Zehaztapenak.

Udal interesadunek beren herriean markesina instalatzeko dirulaguntza eskatzeari buruzko erabakia hartu ondoren, interesa duen udaleko teknikarien eta Garraio Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko bilera hitzartzen ahal izanen da, markesinaren instalazioak bete beharko dituen zehaztapenak eta xehetasunak zehazteko. Bi markesina modelo horien eraikuntza-xehetasunak eskatzaileen eskura egonen dira, Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuan.

F0609260

1.3.6. Beste batzuk

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. Iragarkia.

Deialdia, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak maiatzaren 9ko 1111/2005 Ebazpenaren bitartez eta ondoren uztailaren 21eko 1800/2005 Ebazpenaren bitartez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile izateko 118 lanpostu huts lekuadatze lehiaketa bidez betetzeakoa (2005eko maiatzaren 30eko eta abuztuaren 22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALAK, 64. eta 100. zenbakiak).

Rosario Huizi Vaquero andreak, Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuenetan izenean, gora jozko errekursoa aurkeztu du Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako martxoaren 20ko 687/2006 Ebazpenaren aurka, aipatu deialdia bukatutatzat ematen duena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegi buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 112. eta 59. artikuluei jarraituz, eta horren berri ematen zaie interesatu guztiel, alegazioak egiteko aukera izan dezaten, Erregistro Orokorean aurkeztuta (Nafarroako Jauregia, Karlos III.aren etorbidea, 2; Iruña), iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasi eta, gehienez ere, hamar egun balioduneko epean.

Arkeztutako errekursoaren kopia interesatuen eskura dago Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Atalean (Karlos III.aren etorbidea, 2, 2. solairua; Iruña).

Iruñean, 2006ko ekainaren 19an.—Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Alberto Andérez González.

F0610491

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

OIBAR

Behin betiko onetsirik Oibarko (Nafarroa) Planeamenduko arau subsidiarioetako determinazio egituratzaleen aldaketa, katastroko 7. poligonoko 506. lurzatian

Oibarko Udalak, 2006ko maiatzaren 26an egin bilkura arruntean, ondoko erabaki hau zuen, legeak eskatzen duen quoruma zuela:

Oibarko Udalak behin-behinekoz onetsi zuen Oibarko (Nafarroa) Planeamenduko arau subsidiarioetako determinazio egituratzaleen aldaketa puntuala, katastroko 7. poligonoko 506. lurzatian. Orain, Ingrumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua txostena emateko epea iraungirik, eta departamentu horri eginiko jakinarazpenaren ondotik presuntzozko egintza emateko epea ere iraungirik, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 70, 71 eta 79. artikuluei jarraikiz, Udal honek behin betiko onetsitzat eman du delako aldaketa, eta iragarki honen bidez betetzat eman du argitalpen eta jakinarazpenaren gaineke beharkizunak.

NORMATIVA URBANISTICA

2.1.1.-Clasificación del suelo.

Los terrenos de la nueva unidad, según se señala en puntos anteriores, cumplen las características definidas en el artículo 90 y siguientes de la L.F.O.T.U. 35/2002 por lo que les corresponde la clasificación de suelo urbanizable sectorizado.

2.1.2.-Sectorización.

Los terrenos de la nueva unidad conformarán un sector único de actuación con una superficie total del ámbito de actuación de 5.887,76 m².

2.1.3.-Vías públicas y sistemas generales.

La ordenación propuesta incluye el actual vial de acceso que se sitúa en el lado Este de la nueva unidad y el espacio público con que ésta linda al Norte, creándose una nueva calle de propiedad privada y uso público en superficie.

2.1.4.-Usos y aprovechamientos.

Se otorga a la nueva unidad de suelo urbano un uso global residencial.

Se le otorga una edificabilidad máxima de 0,4 m²/m² de parcela bruta, permitiendo la construcción de 16 viviendas unifamiliares adosadas.

En base al artículo 52.2 de la L.F.O.T.U. 35/2002, tratándose de un municipio de menos de 3.000 habitantes y no existiendo al respecto determinaciones urbanísticas vinculantes, no se prevé la construcción

de viviendas protegidas, dada la escasa entidad de la actuación y la tipología de las viviendas proyectadas.

2.2.–Determinaciones urbanísticas pormenorizadas de la nueva unidad.

Las determinaciones urbanísticas pormenorizadas que regirán para el desarrollo de esta Unidad de Ejecución son las señaladas en la Normativa Urbanística general de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Aíbar.

2.2.1.–Alineaciones y rasantes.

Se establecen en la documentación gráfica adjunta, manteniéndose las rasantes con referencia al actual vial de acceso y estableciéndose las alineaciones interiores de parcela como máximas según normativa en cuadro adjunto.

2.2.2.–Condiciones, morfología, tipología y usos edificatorios.

La nueva edificación se adaptará al uso residencial, con la siguiente normativa edificatoria:

Alineaciones máximas: Las definidas en plano número 3.

Altura máxima: 7,50 medidos desde rasante del terreno al encuentro de cubierta con fachada.

Superficie máxima edificable: La superficie máxima edificable será de equivalente a 0,4 m²/m² de suelo bruto, que se adjudica a las parcelas resultantes en proporción a sus respectivas superficies.

Para el suelo de equipamiento comunitario polivalente se propone una superficie máxima edificable de 1,0 m²/m².

Usos: Las edificaciones tienen un uso Principal residencial, con un uso permitido de pequeña industria artesanal.

Tipología: Viviendas unifamiliares adosadas.

Alturas máximas: PB+1+BC.

Sistema de actuación: Dado que la parcela es de propietario único, se establece como Sistema de Actuación el de Reparcelación Voluntaria, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 167.1 de la L.F.O.T.U. 35/2002.

Ocupación en vivienda unifamiliar adosada 1.243,20 m².

Edificabilidad en vivienda unifamiliar adosada 2.100,00 m².

Espacio libre privado (jardines) 632,00 m².

2.2.3.–Espacios libres públicos.

Superficies:

Dotación polivalente 340 m².

Zonas verdes 1.140 m².

Aceras y pasos peatonales 763 m².

Viales y aparcamientos 1.472 m².

2.2.4.–Aprovechamiento tipo.

De conformidad con el artículo 102 de la L.F.O.T.U. 35/2002, el aprovechamiento tipo se obtendrá dividiendo el aprovechamiento lucrativo total, incluido el dotacional privado, debidamente homogeneizado, por su superficie total.

A estos efectos se definirán los coeficientes de homogeneización:

Vivienda unifamiliar adosada 1,0.

Suelo privado libre 0,4.

Equipamiento comunitario polivalente 0,5.

Obteniendo de esta forma el aprovechamiento homogeneizado:

Vivienda unifamiliar adosada 2.100,00 m² homog.

Suelo privado libre 126,40 m² homog.

Equipamiento comunitario polivalente 170,00 m² homog.

Total 2.396,40 m² homog.

Aprovechamiento tipo 0,407014 m² homog/m².

2.2.5.–Urbanización.

Se redactará el correspondiente Proyecto de Urbanización que contemplará las obras necesarias, tanto de acometidas a los servicios urbanísticos exteriores como los interiores a la propia parcela, de conformidad con las normativas vigentes y las determinaciones de las diferentes Compañías suministradoras.

Se tomarán por parte del Ayuntamiento las medidas necesarias para asegurar el cumplimiento de las labores urbanizadoras, siendo el aprovechamiento apropiable por los propietarios el 90% del aprovechamiento total, de conformidad con el Artículo 40 de la Normativa Urbanística General del Plan Municipal.

2.2.6.–Determinaciones sobre espacios dotacionales y de servicios. Ley Foral 35/2002, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Artículo 53. Determinaciones sobre espacios dotacionales y de servicios.

Datos:

Clasificación del suelo: urbanizable sectorizado.

Uso: Residencial.

Superficie total ordenada: 5.887,72 m².

Número de habitantes: 64.

Número de viviendas: 16.

Superficie construida: 2.100 m².

Superficie construida sobre rasante y vivienda: 1.700 m².

Núcleos con población superior a 500 habitantes.

En suelo urbanizable.

	SEGUN L.F.	EN PROPUESTA
Espacio público con carácter de sistema general:		
(5 m ² por habitante)	320 m ²	
(15 m ² por vivienda)	240 m ²	
Parques, jardines, zonas deportivas y de recreo y expansión pública:		
(35 m ² por vivienda)	560 m ²	
(35 m ² por cada 100 m ² construido de uso res.)	735 m ²	1.140,00 m ²
Equipamiento comunitario polivalente:		
(15 m ² por vivienda)	240 m ²	
(15 m ² por cada 100 m ² construido de uso res.)	315 m ²	340,00 m ²
Aparcamiento para vehículos:		
(Total: 2 plazas por cada 100 m ² construidos de edificación sobre rasante vivienda)	34 plazas	45 plazas
(En suelo público: 1 plaza por cada 100 m ² construidos de edificación sobre rasante vivienda, más una plaza por cada 100 m ² de uso comercial o terciario)	16 plazas	16 plazas

2.2.7.–Otras determinaciones.

De conformidad con lo dispuesto en el Artículo 100 de la L.F.O.T.U 35/2002, se cederá gratuitamente al Ayuntamiento de Aíbar el 19 por 100 del aprovechamiento del sector. Esta cesión de aprovechamiento podrá ser sustituido por su compensación económica, de conformidad con el Convenio Urbanístico que se suscribirá entre el Ayuntamiento de Aíbar y quien tramita el presente documento.

En el desarrollo de la urbanización del sector se incluirá el 30% del valor del puente a realizar sobre la Regata Lorea, cuantificándose este importe en el Convenio Urbanístico anteriormente mencionado.

Asimismo, en el conjunto de las obras de urbanización a realizar se incluirá el tratamiento en el margen correspondiente al sector, del cauce de la Regata Lorea.

L0609993

SAN MARTIN UNX

San Martin Unxeko eraikinak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespina

San Martin Unxeko Udalak, 2006ko martxoaren 29an egin osoko bilturak, erabaki zuen hasiera batez onestea San Martin Unxeko eraikinak lehen aldiz erabiltzeko edo okupatzeko lizentziak arautzen dituen udal ordenantza.

Onesteko erabakia 2006ko 57. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN arigitatu zen, maiatzaren 12an, eta jendurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betiko onetsi da eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulan xedatutakoari jarraituz.

San Martín Unxen, 2006ko ekainaren 12an.–Alkatea, Beatriz Ucar Muruzábal.

SAN MARTIN UNXEKO ERAIKINAK OKUPATU EDO LEHEN ALDIZ ERABILTZEKO LIZENTZIAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Xedea

1. artikula. Ordenantza honek eraikinak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziatarako baldintzak eta prozedura ezartzea du xede, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189. artikulan xedatutakoari jarraituz.

Eraikinak

2. artikula. Ordenantza honetan eraikintzat hartzen dira etxe berriak eta, haietan batera, lehengoak handitu zein egituraz berritzetik sortzen direnak, betiere denak hirigintzako lizentziaren baten babesean eginik.

Helburua

3. artikulua. Lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizenziak honako helburu hau baizik ez du:

a) Altxatutako eraikina eta aldi berean egin den urbanizazioa, halakorik bada, proiektu teknikoaren eta bere garaian emandako hirigintza lizenziako baldintzen arabera egin direla egiaztatzea.

b) Eraikitakoak bizigarritasun eta higiene baldintzak betetzen dituela ziurtatzea.

c) Eraikina erabilera jakin baterako izan daitekeela baiezatzea.

d) Eraikitzaleak, hirigintzako ekipamenduari zein elementuei kalte egin badie, berriro jarri dituela ziurtatzea.

Lizenziaren eskaera

4. artikulua. 1. Obrak amaituta, eraikinak lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizenzia eskuratu nahi dutenek eskaera bat aurkeztuko dute, San Martin Unxeko Udalari zuzendua; eskaerak hurrengo datu hauek izanen ditu:

a) Interesatuaren edo, hala bida, ordezkatzen duenaren izen-abizenak.

b) Lizenzia zein eraikinetarako eskatzen den, huraxe adierazi beharko da zehatz-mehatz, argi eta garbi.

c) Tokia, data eta eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinatura.

2. Interesatuek eskabidearekin batera hurrengo agiri hauek aurkeztuko dituzte:

a) Etxe berria egiteko, hura handitzeko edo egitura berritzeko obretarako aginduzko lizenziaren fotokopia.

b) Obrak bukatu direla dioen ziurtagiria, eta, hala bida, urbanizazioarena, onetsitako proiektu teknikoaren arabera; hura teknikari esku-dunak emanen du eta bertan higiezinak okupatzeko beharrezko baldintzak betetzen direla adieraziko da.

c) Hirilurren gaineko zergan alta eskatu dela dioen ziurtagiria.

d) Udal tasaren ordainagiria.

Lizenzia emateko organo eskuduna

5. artikulua. Lizenzia emateko eskumena alkateari dagokio.

Procedura

6. artikulua. Interesatuak eskaturik procedura hasita, Alkatetza gisa honetan ariko da:

1. Udalaren zerbitzu teknikoei txostenetan eskatuko zaie, eta hartan adieraziko da: obrak proiektu teknikoaren eta eman hirigintzako lizenziaren arabera egin diren; obren ondorioz ukitura geratu ahal izan diren hirigintzako elementuak eta hiri ekipamendua berriro jarri diren; segurtasunaren, higienearen eta apainketa publikoaren baldintzak betetzen dituen; eta eraikinak eman nahi zaion erabilera izaten ahal duen.

2. Txostenak gehienez ere hamabortz eguneko epean evaluatuko dira.

3. Aipatu txosten horren ondorioz, onetsitako proiektuaren gaineko aldaketak daudela egiaztatzen bada, egin den arau-hauste mota eta, hala bida, horren legeztatzea adierazi beharko dira txosten teknikoan.

Era berean, lehen aldiz okupatzeko lizenzia emateko, eraikinak bizigarritasun eta higiene baldintzak betetzen dituen zehaztuko da, ura, gasa, elektrizitatea eta antzeko zerbitzuak kontratatzeko baimena emateko baizik ez bada ere, eta egon litezkeen akatsak zuzentzea ukatu gabe. Horrela baldin bada, bakarrik higiezina okupatzeko baimentzearen luzatuko da lehen aldiz okupatzeko lizenzia, higiezinak aipatu baldintzak betetzen baititu.

Ebatzi beharra

7. artikulua. 1. Alkateak hilabeteko epean ebatzi beharko du eskaera, udal bulegoetan sarrera ematen zaionetik.

2. Onartutako txostenak eta irizpenak ebazpenaren testuari gehitu edo erantsiko zaizkio, izan ere haien onarpena ebazpenerako arrazoi-ztat hartuko da.

Ustezko egintza

8. artikulua. Ebazteko epea agortzen bada, alkateak edo Hirigintzako arduradunak ebazpenik eman gabe, ebazpena baietsitza hartuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean xedatutakoarekin bat.

Eraikinaren titularren betebeharrok

9. artikulua. 1. Lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizenzia eskaratu aurretik, eraikinaren titularrek debekatua dute eraikina okupatzea.

2. Eraikinaren zati bat edo osorik besterentzean, hartzaleei espreski adieraziko zaie lehen aldiz okupatzeko lizenziari ez duela, hora besterentzerakoan eskuratu ezean.

10. artikulua. Lehen aldiz okupatzeko lizenziak eskatzen dituzten pertsonek betebehar fiskal hauek dituzte:

Udalak osoko bilkuraren onetsiriko tasa eta eskubideak ordaintza; horiek I. eranskinean agertzen dira eta ordenantza honek indarra harzen duen egunetik aitzina eskatuko dira. Argindarra eta ura banatzetan duden enpresen betebeharrik

11. artikulua. 1. Argindarra banatzetan duten enpresek, hornidura horri dagokionez, aplikatzen ahal zaizkien legezko arauetik men eginen diente, obretarako behin-behineko kontagailuez eta etxebizitzak lehen aldiz okupatzeko lizenzia aldez aurretik eskuratu beharraz den bezainbatean.

2. Obretarako ur-hornidura, hirigintzako aginduzko lizenzia eskuratu ondoren, zerbitzu publikoaren titularrak den enpresta hornitzaleari dagokio, eta behin-behineko emanen da, hirigintzako lizenziak indarra duen denboran bakarrik.

3. Lizenziaren obren amaierarako eman epea eta, halakorik bida, bidezko luzapena edo luzapenak agorturik, alkateak hornidura eteteko eskatuko die konpainia hornitzaleei, eta interesatuei hamar egun lehenago gatzigatuko.

4. Obretarako eman ur-hornidura ez da bertzelako jardueretan erabiltzen ahal, etxearen, batez ere.

5. Enpresta hornitzaleak ez ditu etxerako urez hornitzen ahal lehen aldiz erabiltzeko lizenziariak ez duten eraikinak.

Arau-hausteak eta zehapenak

12. artikulua. Hirigintzako arau-haustea izanen da lehen aldiz okupatzeko aginduzko lizenziariak gabe eraikinak lehen aldiz okupatzen, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Legearen 209. artikuluak eta hurrengoak, Lege beraren 189. artikuluari eta Hirigintzako Diziplinaren 1978ko ekainaren 23ko Erregelamenduaren 90. artikuluari dagokienez, xedatutakoarekin bat.

13. artikulua. 1. Aurreko artikuluan aipatu arau-hausteagatik zehapena egindako obraren balioaren ehuneko batetik bortzera bitarteko isuna izanen da, eta gehienez ere berrehun eta berrogeita hamar mila pezeta, egindako jarduera legeztatzen ahal bida, Hirigintzako Diziplinaren Erregelamenduaren 90. artikuluak xedatutakoarekin bat.

2. Aurreko artikuluan jasotako jarduera legeztatzerik ez bida, zehapena izanen da okupatutako eraikinaren, oinaren, lokalaren edo haren atalen balioaren ehuneko bortzetzik hamarrera bitarteko isuna, eta gehienez ere milioi bat pezeta, Hirigintzako Diziplinaren Erregelamenduaren 79. artikuluak xedatutakoarekin bat.

3. Udalak inoiz ere ez dio utzen ahal urratutako hirigintzako ordena zuzentzeko neurriak hartzeari, eta okupazioaren jarduera berehala bertan behera utz dadila xedatuko du, badezpadako neurri gisa.

Erantzuleak

14. artikulua. Eraikinak lehen aldiz lizenziariak gabe okupatzen badira, obraren sustatzaileak eta okupazioa egiten duenak izanen dute erantzukizuna, pertsona bera ez direnean; isunak ere, zein bere aldetik doaz.

Organo eskuduna

15. artikulua. Zehapen prozedura ebazteko organo eskuduna alkatea da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.K) artikuluak xedatutakoarekin bat.

Zehapen prozedura

16. artikulua. Zehapen ahalmena erabiltzeko, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez horren gainean onetsi zen Erregelamenduan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Araubide juridikoa

17. artikulua. Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan hona indarra duten aginduak: Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea; apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretua, zeinaren bidez Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi baitzen; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Hirigintzako Diziplinaren Erregelamendua, 1978ko ekainaren 23ko; eta Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldautua.

*I. ERANSKINA**Lehen aldiz erabiltzeko lizenzia emateko tarifik*

-Eraikin berriak: 200,20 euro.

-Egiturak berritzea, handitzea, zaharberritzea: 120 euro.

SARTAGUDA

Behin betikoz onetsirik Sartagudako udal mugapean enplegua sustatu eta industria garatzeko ordenantza

Sartagudako udal mugapean enplegua sustatu eta industria garatzeko ordenantza hasiera batean onetsi zen, 2006ko martxoaren 30eko osoko bilkuraren hartutako erabakiaren bidez, eta iragarkia paratu zuen Herriko Etxeko iragarki oholean eta, maiatzaren 1ean, 2006ko 52. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN. Onespen horren kontrako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, hasierako onespen hori behin betikoa bilakatu da. Ordenantzaren testu osoa ondotik argitaratzen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoari jarratuz.

Sartagudan, 2006ko ekainaren 12an.—Alkatea, Iñigo Pascual Ramos.

SARTAGUDAKO UDAL MUGAPEAN ENPLEGUA SUSTATU ETA INDUSTRIA GARATZEKO ORDENANTZA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoari jarratuz, udalerriari dagokio herriaren beharrak eta nahiak asetzeko jarduera mota oro sustatzea. Enplegu egonkorra sortu eta mantentzeko eta lan merkatura sartzeko beharrak asetzen ahal dira laguntena programak ezarri Sartagudako udalerrian aritzen diren enpresendako.

Enpresendako laguntena programak sustatzeko araudi zehatz bilten da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 221, 222 eta 223. artikuluetan. Horien arabera, Nafarroako toki entitateak lankidetzen aritzen ahal dira, bertze erakunde publiko eta pribatuekin nahiz partikularrekin ere, herriaren komunitatearen interes publikoen kudeaketan, tokiko eskumenei esleitutako zerbitzuak eta jarduerak osatu edo ordezkatu behar direnean, haindik eman edo egiteagatik laguntena ekonomikoak eskainiz. Laguntena ematerakoan irizpide hauei jarraituko zaie: publikotasuna, tratu berdinatasuna eta bitartekoena eta helburuen arteko bat etortzea.

Ordenanza honetako jarduketak Europako Kontseiluak toki garapenerako onartutako sustapen politiken barnean sartzen dira, eta betiere Europako Batasunaren ekinenekin bat datozi.

1. artikulua. Ordenanza honetako arauak osatzen dute Sartagudako udalerrian enplegua sustatu eta industria garatzeko ematen diren dirulaguntzen araubide juridikoa.

Laguntena ekitaldi ekonomiko osoan eskatzen ahal dira, betiere hartarako aurrekontuan ezarriko diren kontusalei loturik, ezin izanen baita kontusail horietan ekitaldi bakoitzerako ezarritako zenbatekoa gainditu.

2. artikulua. Ordenanza honetako araututako dirulaguntzak bateragariak izanen dira organismo edo erakunde publikoek enpresek eta jarduera berarentzat ematen dituzten bertzelako laguntenak. Hala ere, ematen diren dirulaguntzen zenbateko osoa ez da benetan egin eta frogatutako inbertsioa baino handiagoa izanen.

3. artikulua. Dirulaguntza hauen onuradunak izaten ahalko dira enpresek udalerrian ezartzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, betiere bortz lanpostu edo gehiago sortzen baditzte, lanaldi osokoak eta mugagabeak.

4. artikulua. Emateko baldintzak eta onuradunaren betebeharra.

Araubide honetako laguntena baliatu ahal izateko, ondoko beharkizun eta baldintzak beharko dira bete:

a) Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak Sartagudan gauzatzea.

b) Inbertsioa zein ondasunetan eginen den, enpresa onuraduna hain jabe izatea.

c) Enpresa onuradunak tributo arloko betebeharra eta Gizarte Segurantzari dagozkionak eguneratuak izatea.

d) Enpresa onuraduna bazterturiak ez egotea enplegu programen onurak jasotzetik gizarte arloko arau-haustea egiteagatik, eta aurreko hamabi hilabeteetan plantilla finkorik murriztu ez izana.

e) Enpresa onuraduna kaudimenduna izatea, alderdi ekonomikoei, finantzarioei eta teknikoei dagokienez.

Lagunten onuraduna honako hauetara beharturik dago:

a) Dirulaguntza eskaeran ezarritako epean eginen ditu inbertsioak, eta Sartagudako Udalerri jakinarazi beharko dio noiz burutu eta noiz jarri diren abian, hori gertatu eta hilabeteko epean, eta dirulaguntzak emanen direla jakinarazi aitzin burutu eta abian jarri badira, jakinazpen hori hartzeta eta hilabeteko epean.

b) Udalerri igorriko dizkio, berak ezartzen duen maneran, egindako inbertsioen eta sortutako lanpostuen egiaztagiriak, eta inbertsioak benetan egin diren eta hartutako konpromisoak bete ote diren ziurtatzeko behar diren ikuskapen eta egiazpenak ahalbidetuko ditu.

c) Dirulaguntzaren xede diren ondasunak Sartagudan eta enpreseren jarduerari atxikiak edukiko ditu, gutxienez ere 10 urtez. Epe hori inbertsioak abiarazten direnetik aitzina kontatuko da.

d) Abala ematea ordenantza honetako 6. artikuluan adierazten den maneran.

e) Sartagudako Udalerri datu, agiri eta egiaztapenak eman beharko dizkio, Udalerri, emandako dirulaguntzen segimendua eta kontrola egiteko, beharrezkotzat jotzen dituen guztiak, alegia.

5. artikulua. Industriaren garapenerako udal laguntzak izanen dira:

a) Dirulaguntza, industriarako lurra, nabeak edo instalazio eraikiek eskuratzeko: lurraaren balioaren %50 arteko laguntza; gehienez ere, 60.000 euro.

b) Dirulaguntza, lanpostuak sortzeko: 1.600 euro, lanpostu finko bakoitzeko, lanaldi osokoak badira, eta gehienez ere, 16.000 euro.

Ordenanza honetan jasotzen diren baldintzak betetzen dituzten enpresek artikulu honetako aurreko ataletan ezarritako edozein laguntena eskuratzeko ahalko dute. Konzeptu guztiengatik enpresek batek jasotzen duen dirulaguntzaren zenbateko osoa ez da inola ere 76.000 eurotik goitikoa izanen.

Dirulaguntza horiek eskuratzeko, egin beharreko inbertsioaren %75, gutxienez, hartuko du enpresek bere gain.

6. artikulua. Aitzineko artikuluko a) ataleko dirulaguntzaren kasuan, bankuko abalaren bitarbez bermatu beharko da zenbatekoaren itzulketa ondoko kasuetaurako: dirulaguntzaren xede izan den lurrean edo nabean ez bada proiektu gauzatzen edo jarduera ez bada hasten dirulaguntza eman zenetik sei hilabeteko epean; orobat, Sartagudako Udalerri iritziz bertzelako baldintzak ez badira bete edo dirulaguntza eman eta bortz urteko epean jarduera bertan behera uztzen bada. Bankuko abal horrek bermatuko du, orobat, dirulaguntza emateko dokumentuan ezarritako enplegu maila hamar urtez mantentzeko betebeharra.

Lanpostuak sortzeko dirulaguntzaren kasuan, abal bidez bermatu beharko da enplegu maila hamar urtez mantentzeko dirulaguntza emateko dokumentuan ezarritako betebeharra.

Artikulu honetan ezarritako epeak iragandakoan, bermeak itzuliko dira interesatua hala eskatua, betiere dirulaguntza emateko dokumentuan jasotako baldintzak betetzen badira.

7. artikulua. Procedura.

a) Aurrekontuko dirua.

Udalak aurrekontuan zenbat diru ezartzen duen, horixe izanen dute muga laguntena hauetan. Aurrekontuko kontusailera mugatuko dira. Ordenanza honek ez du Udala behartzen urtero kontusail bat hornitzera.

b) Deialdi publikoa.

Ordenanza honetako 5. artikuluan jasotzen diren dirulaguntzak emateko, Sartagudako Udalerri, aurrekontuan horretarako kontusailik baldin bada, deialdi publikoa egiten du urtero eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalerri iragarki oholean argitaratuko, interesa duten enpresek, baldin eta onuradun izateko beharrezkoak diren beharkizunak betetzen baditzte, deialdiko epearen barnean eskabidea aurkez dezena.

Ordenanza honetan arauturiko laguntena baliatu nahi dituztenek eskabidea aurkeztuko dute alkateari zuzendutako eskaera eginez, eta eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dituze:

a) Eskatzailearen izaera fisiko edo juridikoaren egiaztagiriak
b) Enpresa eskatzailearen kaudimen ekonomikoaren egiaztagiriak.
c) Enpresa eskatzailearen kaudimen teknikoaren egiaztagiriak.

d) Garatu beharreko jarduerari edo instalazioari buruzko txostena, espresuki adierazten dituena azalera, behar diren langileak eta haien kualifikazioa (lekualdatzeak edo lanpostu berriak diren zehaztu beharko da), fakturazioa, makineria edo instalazio teknikoak, garapenaren gai-neko aurreikuspenak, inbertsio aurreikusia, enpresa talde batzen partaide izatea eta Sartagudako Udalerri osoko bilkurak dirulaguntzaren gaineko erabakia har dezan beharrezkoak izan daitezkeen gainerako guztiak. Udalerri eskatu ahal izanen du dirulaguntza emateko beharkizunak eta baldintzak betetzen diren egiaztagiroko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak aurkezteko.

e) Eskumena.

Sartagudako Udalerri osoko bilkurari dagokio aurkezturiko eskaeren gaineko ebazpena ematea. Hark hartuko du erabakia aurkeztutako eskabide bakoitzaren gainean, onartuz edo ukatuz, eta laguntena zenbatekoa zehaztuko du. Zenbateko hori emanen da aurrekontuko baliabideak eta eskatzaileak aurkeztutako datuak ikusi ondotik.

f) Administrazioaren isiltasuna.

Udaletxean eskabidea eta agiri osagarriak aurkeztu eta hiru hilabete iraganik, Udalerri berariazko ebazpenik eman gabe, eskaera ezetsi dela ulertuko da.

8. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.

Laguntzak, inbertsioa egin eta enplegua sustatzeko dirulaguntza zuzenak direnean, ez dira ordainduko harik eta enpresa onuradunak Sartagudako Udalari jakinarazten ez dion arte hiaeik burutu eta abian jarri direla, eta Udalari igortzen ez zaion arte, Udalak berak zehazten den maneran, egindako inbertsioen eta sortutako lanpostuen egiaztagiriak.

Horretarako, baimena zer ekitalditarako den, hurrengo ekitaldietara luzatu beharreko gastuen gaineko konpromisoak ere hartzen ahalko dira, gastu horiek xedatu aurreko legezko tramiteak ekitaldian berean hasten badira eta konpromiso horiek ez baditzute gainditzen Sartagudako Udalak ekitaldi bakotzerako ezartzen dituen mugak.

Behar diren egiaztapenak egindakoan, Sartagudako Udalak laguntzak ordaintzeko ebazprena emanen du.

Dirulaguntzen enpresa onuradunek kobrau aitzin egiaztagatu beharko dute tributo arloko betebeharra eta Gizarte Segurantzari dagozkionak eguneratuak dituztela.

Tributo arloko betebeharra baterik daudela egiaztagoko, agiri hauek aurkeztuko dira:

-Zerga Administrazioaren Agentziaren egiaztagiria.

-Jarduera ekonomikoan gaineko zergako alta eta azken ordainagiria.

-Nafarroako Foru Ogasunak Iuzaturiko egiaztagiria, Foru Ogasunarekin zerga arloko zorrik ez dagoela egiaztagoko.

Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharra baterik daudela egiaztagoko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralte Bulegoaren egiaztagiria aurkeztuko da.

Zorrak geroratuak nahiz zatikatuak badaude edo, inpugnazioaren ondorioz, hiaeik bertan behera uztea erabaki bada, egoera horren gaineko ebazprena aurkeztu beharko da.

9. artikulua. Onuradunak ez baditu dirulaguntza jasotzearen ondorioz dituen betebeharra betetzen, edo aurkeztu beharreko datuak eta dokumentuak ezkutatu, desitxuratu edo faltsutzen baditu, egiaztagaten lana oztopatzten badu edo laguntzak eman eta ordaintzeko era-bakigarriak diren egitate eta inguruabarrik ezkutatzenten baditu, dirulaguntza bertan behera geldituko da eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, berandutzeagatik legez dagozkion korrituak barne, jarduketa horrek ekar liezaiokoen erantzukizuna deusestan ukatu gabe.

Aipatutako kasuetan, behar den expedientea tramitatu da, kontraesanaren eta probaren printzipioen araberako, eta onuradunari entzutea emanen zaio. Expedientearen beharrezkoztat jotzen diren probak eta alegazioak bilduko dira, eta Sartagudako Udaleko osoko bilkura izanen da dirulaguntzak ebatzi edo baliogabetzeko organo eskudun bararra.

10. artikulua. Udalak aldean-aldean jarraipen kontrolak eginen ditu, dirulaguntzaren ondoriozko betebeharra betetzen direla bermatzeko. Hartara, interesatuek eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte une oro eta ezarritako epean. Betebehar horiek bete ezean, dirulaguntza bertan behera geldituko da, aurreko artikuluan ezarritako moduan.

11. artikulua. Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen denean hartuko du indarra, Udalak osoko bilkuran behin betiko onetsi ondoan."

Argitara ematen da orok jakin dezan, eta ohartarazten da ezen, behin betiko onespain honen kontra, errekursoa hauetakoren bat aurkez daitekeela, hautara:

1.-Hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, berraztertzeko errekursoa, egingintzaren udal organo egileari zuzendua (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena).

Berraztertzeko errekursoa aurkeztuz gero, errekursoa ebatzi edo ustez ezetsi arte ezin izanen da ez gora jotzekorik ez administrazioaren auzi-errekurtsorik paratu.

Berraztertzeko errekursoaren ebazprenaren kontra ezin izanen da errekurso hori bera berriz aurkeztu.

2.-Hilabeteko epean, jakinarazten denetik hasita, gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua (uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea).

Gora jotzeko errekursoa aurkeztuz gero, ebatzi edo ustez ezetsi arte ezin izanen da administrazioaren auzi-errekurtsorik paratu.

3.-Bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, administrazioaren auzi-errekursoa, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua (uztailaren 13ko 29/1998 Legea).

2.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

2.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

BURLATA

Eskolazainaren izendapena

Udal honetako alkateak ebazprena eman du gaurko egunarekin, hitz hizkuntza ondotik heldu den bezala.

1.-José Arrechea Doray (15.773.607 NANa duena) Ermitaberri ikastetxe publikoko eskolazain izendatzea, 2005eko 148. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN (abenduaren 12an) argitaratu deialdiarekin bat. Lanpostuak 5.26 zenbakia du plantilla organikoan eta euskaraz 3. hizkuntza maila izatea nahitaezkoa du.

2.-Izendapen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

3.-Deialdiko 10. oinarrian adierazitakoaren arabera, izendaturiko izangaiak hilabeteko epean hartuko du jabetza, izendapenaren jakinarrapena egiten denetik aitzina.

4.-Erabaki hau jakinaraztea José Arrechea Doray jaunari.

Argitara ematen da, behar diren ondorioak sor ditzan.

Burlatan, 2006eko ekainaren 12an.—Alkatea, José Muñoz Arias.

L0610261

2.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Eskaintza Publikoa, oposizioak eta lehiaketak

BURLATA

Deialdia, peoi izateko lanpostu bat, euskaraz 2. mailan jakitea nahitaezkoa duena, Kultur eta Jaietako Patronaturako, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

OINARRIAK

1.-Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da peoi izateko lanpostu bat (E maila), euskaraz 2. mailan jakitea nahitaezkoa duena, lanaldi osoan eta funtzionarioen araubidean betetzea, Burlatako Udaleko Kultur eta Jaietako Patronatuaren lan egiteko; lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez beteko da, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan II. tituluko I. kapituluko 5. etik 8. artikulu bitartean aurreikusitakoari jarraikiz.

1.2. Hautapen probak gainditurik, deialdiko lanpostua betetzeko izendatua gertatzen dena E mailan egokituko da, eta maila horren lan-sariak eta plantilla organikoan ezarrita dauden osagariak hartuko ditu.

1.3. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudun noiznahi aldatzten ahalko dute.

1.4. Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden gaietan Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko da.

2.-Izangaiet bete beharreko baldintzak.

Oposizio-lehiaketa honetara onartuak izateko, izangaiet, eskaerak aurkeztean, baldintza hauek beharko dituzte bete:

-Espainiako herriarra izatea, edo Europako Batasuneko beste estatu bateko, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu bateko, Europako Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio; orobat, espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatuetako herritarren ezkontideek hartz ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoeak eta ezkontidearenak, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

-Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

Eskola ziurtagiria edo baliokidea izatea, gutxienez ere, edo hora eskuratzeko baldintzak betetzea eskaerak aurkezteko epea bukatzean.

-Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez egotea eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izana.

-Bigarren euskara maila nahitaez izatea, Burlatako udal esparruan euskaren erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzako eranskinari jarraikiz. Hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutu Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak egindako probaren bidez frogatzen daiteke edo, bestela, hizkuntza eskola ofizial batek ematen duen gaitasun agiria edo ofizialki horren baliokidetza josten den beste agiri bat aurkeztuz.

-B1 gidatzeko baimena izatea.

L0610076

Eskabideak aurkeztek epea amaitzen den egunerako bete beharko dira aipatutako baldintzak, eta hautaketa bide osoan beharko dira bete, izendatzeko unera arte.

3.-Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Bentetako ingurubidea kalea, 1, 31600 p.k.) 8:30etik 14:00etara, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Procedura Erkidegiaren buruzko azaroaren 20ko 30/1.992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz. Horretarako, hogeita hamar egun naturaleko epea izanen da, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak deialdi honetako ereduari lotuko zaizkio (I. eranskina).

3.2. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) N.A.N.aren edo baliokidea den nortasun agiriaren fotokopia konpultsatsua.

b) Eskatzen den titulazioaren fotokopia konpultsatsua edo hura lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

c) Langileen lanpostuetarako deialdiak tramitatzeko tasa (4,05 euro) diruzaintzan ordaindu izanaren frogagiria edo hura ordaintzeaz salbuetsia egotearena (ez dute tasa hori ordaindu beharko langabeziaren diren izangaiak, betiere Nafarroako Enplegu Zerbitzuak luzatutako enplegu eskatzailearen txartela, eguneratura, aurkezten badute).

d) Izangaiak lehiaketaldian baliarazi nahi dituen merezimenduak argi eta garbi frogatzen dituzten agiriak, jatorrizkoak. Administrazioi kanpoko lanak edo denbora epe ez osoko kontratuak (asteburuetako lanak, ordezkapenak eta abar) egiazatzeko, izangaiaren lan biziiza adierazten duen agiri ofiziala, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak luzatua, aurkeztu beharko da.

Ikastaroetako dagokienez, berri, asistentzia edo matrikulazio frogagiria, haien iraupena, ordutan, agertzen duten agiriek batean.

Merezimenduak ezin badira egiazatua jatorrizko agiri baten bidez, izangaiak balorarazi nahi dituen merezimenduena frogagirien fotokopia kautotuak edo fotokopiak (jatorrizkoarekin batean, konpultsatu ahal izateko) aurkeztuko dira.

3.3. Izangaiak oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkezten dutenean egiazatua eta frogatu beharko dituzte, agiri bidez, baldintzak eta merezimenduak, edo, betiere, eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean. Dokumentazio hori aurkezten ez bada ezartzen diren epean eta moduan, merezimenduak ez dira baloratuko. Nolanahi ere, lehiaketaldiko merezimenduak kontuan hartzeko, epearen mugatzat hartuko da deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeten den eguna.

3.4. Eskabideak aurkeztek epea ezin izanen da luzatu.

4.-Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkeztek epea bukatutakoan, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko buruak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek, onartu eta baztertuen zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko hamar egun baliodunen barrenean, erreklamazioak egiten ahalko dituzte edo, aurkeztutako dokumentazioan akatsik egonez gero, hain zuzendu.

4.3. Erreklamazio epea iraganik eta horiek ebatzitakoan, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko buruak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila aginduko, probak hasteko egunarekin batera.

5.-Epaimahai kalifikatzalea.

5.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Mahaiburua: Burlatako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: aurrekoak eskuordetutako zinegotzia.

Lehen mahaikidea: Kultur eta Jaietako Patronatuko kudeatzailakoordinatzalea.

Ordezkoa: aurrekoak eskuordetzen duena.

Bigarren mahaikidea: Burlatako Udaleko Obra eta Zerbitzuen Unitateko burua.

Ordezkoa: aurrekoak eskuordetzen duena.

Hirugarren mahaikidea: langileen ordezkaria.

Ordezkoa: aurrekoak eskuordetzen duena.

Mahaikide idazkaria: Burlatako Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: titularrak hautatzen duena.

5.2. Lehiaketako merezimenduena balorazioa egin aitzin deitu eta eratu beharko da epaimahai, eta kideen erabateko gehiengoa, bideren, beharko da haren eraketak eta jarduketek balioa izan dezaten.

5.3. Epaimahaiak gehiengoz ebatzik du deialdi honen oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazoak.

5.4. Epaimahaiak erabakiko du bere zein kidek parte hartu behar duten oposizio-lehiaketako une bakoitzean.

5.5. Epaimahaiak proba guztietan nahiz batzuetan aholkulari adituak ekar ditzake. Aipatu aholkulariak beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko.

6.-Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak.

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan eginen da, lehiaketaldia lehenbizi eta oposizioaldia gero, oinarri hauetan zehazten den gisara.

6.2. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzean adieraziko da non, noiz eta zein egunetan hasiko den oposizio-lehiaketa.

Ondotik, epaimahaiak arauzko moduan emanen ditu argitara gaineko proben egunak, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko iragarki oholean.

6.3. Lehiaketaldia:

6.3.1. Epaimahaiak izangaiak alegatutako merezimenduak, behar bezala egiazatua, baloratuko ditu, ondoko baremoaren arabera. Epaimahaiak noiznahi eskatzen ahalko ditu izangaiak alegatutako merezimenduena gaineko argibide zein datu osagarriak.

6.3.2. Merezimenduena baremoa; gehienez ere 20 puntuo balorazioa. Balorazio partzialak, gehienez ere, honakoak izanen dira:

Esperimentzia:

a) Peoi gisa administrazio publikoetan eta haien erakunde autonomoetan, lanaldi osoarekin, lan egindako urte oso bakoitzetik, puntu 1. Zati bakoitzetik (6 hilabete), 0,5 puntu. Urte edo seihioko osoetan konto ez daitezkeen aldiak, hilabete bakoitzetik, 0,06 puntu. Ez dira baloratuko hilabetetik beherako lanak. Gehienez ere 10 puntu.

b) Enpresa pribatuan, lanaldi osoarekin, gisako lanpostuetan lan egindako urte bakoitzetik, 0,5 puntu. Zati bakoitzetik (6 hilabete), 0,25 puntu. Urte edo seihioko osoetan konto ez daitezkeen aldiak, hilabete bakoitzetik, 0,05 puntu. Ez dira baloratuko hilabetetik beherako lanak. Gehienez ere 5 puntu.

Prestakuntza osagarria:

a) Lanpostuaren betekizunei loturik dauden gaiei buruzko prestakuntza eta sakontze ikastaroetan parte hartu izanaren titulu-egiaztagiri bakoitzeko:

-10 ordu baino gutxiagoko ikastaro bakoitzagatik: 0,25 puntu.

-10 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzagatik: 0,50 puntu.

Gehienez ere 5 puntu emanen dira, osotara, ikastaroengatik.

6.3.3. Epaimahaiak lehiakideek alegatu merezimenduena gaineko azalpen eta datuak eskatu ahalko ditu noiznahi.

Izangai bakoitzari dagozkon merezimenduak arrazoiz baloratuko ditu epaimahaiak, baremoaren atal bakoitzaren arabera; edonola ere, ezin izanen da alegatu gabeko merezimendurik, edo agiri bidez egiazatua gabekorik, aintzat hartu, ez eta atal bakoitzari dagozion gehieneko puntuazioa gainditu.

6.3.4. Lehiaketaldia amaitzen denean, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko iragarki oholean jarriko da izangaietako bakoitzak lortutako puntuazioa, eta erreklamazioak egiteko epea emanen da, betiere oposizioaldian aurreikusten den lehen proba baino 24 ordu lehenago bukatuko dena.

6.4. Oposizioaldia

6.4.1. Aldez aurretik Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutu Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak proba bat eginen die hizkuntza escola ofizial batek ematen duen gaitasun agiria edo ofizialki horren baliokidetzat jotzen den beste agiri bat aurkeztu ez duten guztiei, frogatu behar baita bigarren euskara maila nahitaez izatea, Burlatako udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzako eranskinari jarraikiz. Hautapen honetan proba horrek ez du puntuaziorik izanen, lanpostuan aritzeko nahitaezko baina bigarren euskara maila izatea. Bazterturik geldituko dira proba gainditzen ez duten izangai guztiak.

6.4.2. Oposizioaldia gehienez ere 80 puntu emanen zaizkio eta partzialki zehazten diren puntuazioetara iristen ez direnak baztertuko dira. Oposizioaldian ondoko ariketak egonen dira:

Lehen ariketa: kultura orokorrari buruzko galderai (Burlata, Nafarroa eta ezaupide orokorrean gainekei) erantzutea.

Ariketaren puntuazioa, gehienez ere: 20 puntu, eta baztertuak geldituko dira gutienez ere 10 puntu lortzen ez dituztenak.

Bigarren ariketa: epaimahaiak berariaz prestatuko dituen proba praktikoak egin beharko dira, elektrizitateaz, iturgintzaz, ebanisteriaz, zurgintzaz eta pinturaz, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuaren oinarritzko mantentze lanei loturik. Ariketaren puntuazioa, gehienez ere

25 puntu izanen da eta baztertuak geldituko dira gutienez ere 13 puntu lortzen ez dituztenak.

Hirugarren ariketa: harten, nortasun ezaugarriak eta lanpostuarekiko gaitasunak baloratuko du NAPIk, aldez aurretik Udalak onetsitako soslai baten ariora. Gehienez ere, 25 puntu emanen dira.

Laugarren ariketa: buruz buruko elkarrizketa, gehienez ere 5 puntu. Ez da baztergarria.

Bost puntu emanen dira probetan hizkera ez bazterzailea erabil-teagatik.

6.4.3. Lehen eta bigarren ariketak pliken sistemaren bidez eginen dira.

6.4.4. Plikak jendaurrean irekiko dira, eta aldez aurretik iragarriko dira horretarako eguna eta ordua.

6.4.5. Proben deialdiak.

Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko iragarki oholean emanen da argitaru probak zein egun, ordu eta tokitan eginen diren, gutxienez ere berrogeita zortzi ordu lehenago, edo hogeita lau ordu lehenago hasitako proba baten jarraipena baldin bada.

6.4.6. Identifikazioa eta beste.

Ariketa bakotzerako dei bakarra eginen da, eta hartara izangaiak N.A.N. aldean daramatela joan beharko dute. Agertzen ez diren izangaiak oposiziok bantzerturik geldituko dira.

Oharrak, apunteak eta abar transkribatzea eta bestelako iruzurrak egitea berehala bantzerteko arrazoia izanen da, deusetan ukatu gabe bidezko izan litekeen jarduketa penalak.

6.4.7. Epaimahaikide bakoitzak bere kalifikazio emanen du, eta kalifikazio guztien batez besteko aritmetikoa izanen da ariketa zati horren puntuazioa.

7.–Probak gainditu dituztenen zerrenda eta epaimahaiaaren proposamena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaiturik, epaimahaiaik ikusgai jarriko du, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko iragarki oholean, probak gainditu dituztenen zerrenda, puntuazioaren arabera ordenatuta, eta horretarako, izangai bakoitzak lehiaketaldian eta oposizioaldian ateratzen dituen kalifikazioen batuketa eginen du.

7.2. Azken ariketa amaiturik, epaimahaiaik aditzera emanen du Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko iragarki oholean gainditu duten zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, eta puntu gehien lortu duen izangai izendatzeko proposamena eginen dio Patronatuari.

7.3. Proposatutako izangairen batek espresuki uko egiten badio bere izendapenari, ulertuko da izendapen proposamenean sartzen dela gainditu dutenen zerrendako hurrengoa edo hurrengoka.

8.–Izendapena.

8.1. Aurreko oinarrian aipatu hautapen prozesua bukatutakoan, Burlatako Kultur eta Jaietako Patronatuko buruak, puntuaziorik handiena lortzen duen izangai izendatuko du ebazpen bidez, Kultur eta Jaietako Patronatuko zerbitzu anitzetako peoaren lanpostua betetzeko.

Izendapena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

8.2. Izangai izendatua, izendapena jakinarazi eta ondoko hilabekoa epean hartu beharko du lanpostuaren jabetza edo lan kontratuaren eranskina formalizatu. Hala egiten ez badu, epe berean ezinbestekoren bat frogatu ezean, izendapenaren eskubide guztiak galduko ditu 7.3 atalean aipatu bezala eta halabereko ondorioekin. Lanpostuaz jabetu edo bere lan kontratuaren eranskina formalizatzen ez duen bitartean, ez du ordainsarik eskuratzeko eskubiderik izanen.

9.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarien eta aplikazio egintzen aurka, errekurto hauetakoaren bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Berraztertzeo errekurtoa, egintza egin duen organoari berari zuzendua, hilabekoa epean errekurritutako erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtoa, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabekoa epean erabaki hau edo errekurritzen den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabekoa epean, erabaki hau argitaratu edo errekurritu nahi den aplikazio egintza jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Burlatan, 2006ko ekainaren 1ean.–Alkatea, José Muñoz Arias.

I. ERANSKINA

Eskabide eredu

Izen-abizenak:, adinez nagusia, NAN zenbakia:, jaioteguna:, jaioterria: (.....). Helbidea, jakinarazpenak egiteko; herria: (....) kalea:, zenbakia:, posta kodea:, telefonoa:, azaltzen dut:

Eskatzen dut onartua izateko peoi lanpostu bat (E mailakoa), euskal 2. mailan jakitea nahitaezkoa duena, Burlatako Udaleko Kultur eta Jaietako Patronatuko, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian (zenbaki honetako Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua, data honetan:).

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ez dudala indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoen zerbitzutik bereizia izan eta ez naizela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Badudala deialdiko 2. oinarrian adierazten den titulazioa.

Deialdian ezarritako azterketa eskubideak ordaindu ditudala, eta horren egiaztagiria erantsi dudala.

Baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen.

Euskal 2. mailan jakitea nahitaezkoa duena, Burlatako Udaleko Kultur eta Jaietako Patronatuko, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian.

Euskal 2. mailan jakitea nahitaezkoa duena, Burlatako Udaleko Kultur eta Jaietako Patronatuko, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian.

Horrenbestez:

Eskatzen dut eskabide hau onartzeko eta, ondorioz, onartua izateko peoi lanpostu bat (E mailakoa), euskal 2. mailan jakitea nahitaezkoa duena, Burlatako Udaleko Kultur eta Jaietako Patronatuko, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian.

Burlatan, 2006koaren(e)an.

(Eskatzailearen sinadura)

L0609379

IRUÑA

Deialdia, Iruñeko udalzain izateko 32 lanpostu oposizio bidez betetzeko

Iruñeko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2006ko ekainaren 13an, ondoko deialdi hau onestea erabaki zuen. Hona hemen oinarriak:

1. oinarria.–Arau orokorrak.

1.1. Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bateginean (urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia), Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamenduan, gainerako aplikazio arauetan eta deialdiaren oinarrietan xedatutakoari jarraituz eramanen da aurrera deialdi hau. Bere xedea Iruñeko Udaleko udalzain izateko 32 lanpostu oposizio bidez betetza da. Lanpostuak txanda hauetan daude banaturik:

a) 16 lanpostu, txanda irekian.

b) 16 lanpostu, txanda murritzuan.

Hautapen probak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada igoera txandako lanpostu hutsen bat, orduan txanda irekikoei gehituko zaie.

Era berean, igoera txandan lanpostu hutsen kopurua baino izangai gehiagok gainditzen badituze probak, txanda horretan probak gainditu arren lanposturik lortzen ez dutenek txanda irekiko lanpostu hutsetarako aukera izanen dute, aipatu txandara aurkezta direnekiko lehia hertsian, lortutako azken puntuazioari jarraituz.

1.2. Deialdi hau dela medio izendatzen diren izangaiak Iruñeko Udaleko funtzionario publiko eta udalzain izanen dira; Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean izena eman eta bertan kidetzear gain, sistema horren babespean geldituko dira. Deialdiko lanpostuak betetzeko izendatzen diren funtzionarioek, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak eta gainontzeko xedapen gehiagiek jasotzen duten eskubide pasiboen eta osasun zein gizarte laguntzaren sistemara afiliatuta baldin badaude, horretan segitzeko nahiz Gizarte Segurantzakora afiliatzeko aukera izanen dute.

1.3. Iruñeko Udaleko langile finkoek, oinarrizko prestakuntza ikastarora sartzen badira, mantendu eginen dute gizarte aurreikuspenerako

dutena araubidea eta beren jatorrizko lanpostuko lansariak jasoko dituzte, horiek praktiketako funtzionarioari dagozkionak baino handiagoak direnean.

1.4. Izendatuak gertatzen direnek, eginkizun, eskubide eta bete-beharrei dagokienez, bete beharko dituzte urriaren 14ko 213/2002 Lege-gintzako Foru Dekretuan ezarritakoak, haren bidez onesten baita Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bategina, eta hura garatzen duten arauak, eta hartan ezartzen den sailkapeneko C mailari atxikiak geldituko dira.

1.5. Lanaldiaren araubidea zerbitzuaren beharretara egokituko da.

1.6. Izendatuek beren destinoan bertan beharko dute bizi, eta horretarako, Iruñeko udalerrian finkatuko dute egoitza.

2. oinarria.—Izangaien betebeharra.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaien ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea.

b) Adinez nagusi izatea eta 35 urte baino gehiago ez izatea.

c) Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako bigarren mailakoa edo baliokideren bat izatea.

Aurreko gorabehera, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko Foru Legearen Seigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, deialdi honetan onartua izateko, nahiko izanen da eskola-graduatura, lehen mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea izatea, halako moduz non, deialdi honetako 5.2.2 arauan aurreikusitako prestakuntza ikastaroa gaindituta, teknikoki baliokideak izanen baitira oinarrizko ikastaroa hori eta batxilergoa, bigarren mailako lanbide-heziketa edo horien baliokidea; baliokidetasun hori, hala ere, ondorio administratiboetarako baino ez da izanen, hau da, C mailako funtzionario izendatzeko, eta ez du baliorik izanen arlo ez akademikoan ezta irakaskuntzaren edo hezkuntzaren arloan ere.

d) Beren egitekoa betetzeko behar diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea, eta deialdiaren 3. eranskinean ageri diren bazterbide medikoetan ez egotea.

e) Gizarremeek 1,70 metroko garaiera bederen izatea eta emakumezkoek 1,65 metrokoak.

f) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik berezia ez izatea.

g) Ibilgailuak gidatzeko B.T.P. eta A motako baimenak izatea.

Igoera txandako izangaien eskaerak aurkezteko epea bukatzen de-nerako aipatutako baldintzez gain beste hauek ere bete beharko dituzte:

h) Nafarroako edozein dministracio publikotako langile finko izatea eta borondatezko nahiz behartutako eszedentzian ez egotea.

i) Deialdiko lanpostu hutzen maila berekoa edo apalagokoa izatea.

j) Administrazio Publikoetan bost urteko antzinatasuna duela frogatzea.

2.2. Aurreko baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dira, g) letrako baldintza salbu, hori oinarrizko prestakuntzaren ikastorako izangaien behin-behineko zerrenda jendaurrea ateratzen denerako bete beharko baita, deialdi honen 5.2.2 oinarian ezartzen den bezala.

3. oinarria.—Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Iruñeko Udalaren erregistro orokorean beharko dira aurkeztu, edo Herri Administrazio Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean arautzen diren bideetako bat erabilita, hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu ere, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina. Aipatu eskabideak deialdi honen 4. eranskin gisara argitaratutako ereduari lotuko zaizkio, eta haietan izangaien adierazi beharko dute oposizioan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehenago. Eredua Iruñeko Udaleko Zuzeneko Kudeaketarako Bulegoan eskura daiteke (Casa Marceliano, Merkatuko karrika, 7-9), edo interneten, www.pamplona.net/webgunea.

3.2. Eskabidearekin batera, izangaien osasun ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, 1. eranskinean aipatzen diren proba fisikoak egiteko gaitasunik aski badutela frogatzeko, eta erantsi beharko dute izen-estate eskabideetarako 9 euro ordaindu izanaren egiaztagiria.

Igoera txandan parte hartea eskatzen duten izangaien, aurrekoan gain, 2.1. oinarriko h), i) eta j) ataletako baldintzak betetzen dituztela frogatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.—Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukaturik, Ekonomiako, Lehendakaritzako eta Hiritaren Partaidetzako zinegotzi delegatuak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik bada, horiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta erreklamazioei erantzun ondoren, Ekonomiako, Lehendakaritzako eta Hiritaren Partaidetzako zinegotzi delegatuak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko du.

5. oinarria.—Oposizioaldia.

5.1. Oposizioa 2006ko irailean hasiko da. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan finkatuko dira ariketak hasteko tokia, eguna eta ordua. Lehenengotik aurrerako probetarako iragarkiak, azkeneko proba non egin, hantxe adieraziko da, baita Udaletxeko eta Iruñeko Udalzaingoaren egoitzako iragarki ohol-letan ere, betiere, proba egin baino 48 ordu lehenago.

5.2. Oposizioak aldi hauek izanen ditu:

5.2.1. Hautapen aldia, honako proba hauek izanen baititu:

A.—Altuera egiaztatzea:

Probei hasiera eman aurretik, 2.1.e) oinarian aipatzen den baldintza betetzen dela ziurtatzeko, izangaien altuera egiaztatuko da.

B.—Lehenengo proba.

1. eranskinean ageri diren ariketa fisikoak egin beharko dira, eta haietako bakoitzak balioko du jendea baztertzen, egiten den markaren arabera. Epaimahaiak finkatuko du ariketak egiteko ordena eta erabakiko du egun bakarrean edo gehiagotan egin behar diren.

Izangai guztiak antidoping kontrola egitera behartuta egonen dira, ariketak egin bitartean edo noiznahi, epaimahaiak hala eskatuz gero. Praktika debekatuak atzeman edo egiazatzeko analisiak dagokion organo espezializatua eginen ditu. Horretarako, debekatuta egonen dira galarazitako substantzia eta talde farmakologikoei eta kirolean arazu kanpokoak diren doping metodoei buruz Kiroletako Kontseilu Gorenak emandako 1996ko urtarriaren 25eko Ebazpenaren eranskinean (1996ko otsailaren 8ko 34. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) heldu diren substantziak, talde farmakologikoak, doping metodoak eta manipulazioak. Bazterturik geldituko dira kontrol horretan positibo ematen duten izangaiak.

C.—Bigarren proba.

Idatzizko ariketa hauek egin beharko dira:

a) Proba objektiboa, 2. eranskinean heldu diren legeriaren arloko gaiei buruzko galderak erantzutea.

b) Proba objektiboa, 2. eranskinean heldu diren zientzien arloko gaiei buruzko galderak erantzutea.

c) Proba objektiboa, 2. eranskinean heldu diren hizkuntzaren arloko gaiei buruzko galderak erantzutea.

d) Proba praktikoa, Udalzaingoari eta/edo Iruñeko hiriaren geografiari buruzkoa.

Epaimahaiak finkatuko du ariketak egiteko ordena eta erabakiko du egun bakarrean edo gehiagotan egin behar diren.

D.—Hirugarren proba.

Proba psikoteknikoak egin beharko dira, izangaiak lanpostuaren soslai profesiografikoaren eskakizunei noraino egokitzen zaizkien neurtu beharrez. Proba hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutu Psikologia Zerbitzuaren laguntzaz eginen da.

Hautapen aldiko proba guztiak dei bakarraren bidez eginen dira, eta baztertutik geldituko dira esaten den egun, ordu eta tokietan agertzen ez diren izangaiak, arrazoia edozein delikar ere.

5.2.2. Oinarriko Prestakuntza Ikastaroa.

Oinarriko prestakuntzako ikastaroak gutxienez ere sei hilabete iraunen du eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren menpeko Segurtasun Eskolak emanen du.

Hautapen aldia gainditu ondotik, epaimahaiak argitara emanen du ikastaroan behin-behinekoz onartutako izangaien zerrenda, lortzen duten puntuazioaren arabera ordenatua, eta kopurua ez da deialdiko lanpostuena baino handiagoa izanen.

Prestakuntza ikastaroan parte hartu ahal izateko, izangaien egiaz-tatu beharko dute, onartuen behin-behineko zerrenda jendaurrean jarri eta hamabost egun naturaleko epean, 2.1. oinarriko a), b), c) eta f) baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen de-nan, eta, era berean, oinarri bereko g) baldintza betetzen dutela oinarrizko prestakuntza ikastaroan behin-behinekoz onartuak izan diren

izangaien zerrenda argitara ematen den egunean; horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

—Jaiotze aktaren ziurtagiria, dagokion Erregistro Zibilak luzatua, edo nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.

—Deialdi honetan eskatzen den titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.

—B.T.P. eta A motetako gidatzeko baimenen fotokopia konpultsatua.

—Eginkizun publikoetarako ezgaituak edo gabetuak ez izatearen, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertuak ez izatearen zinpeko aitorpena.

Epaimahaiak izangai horien osasun azterketa egiteko behar diren neurriak xedatuko ditu, 3. eranskinen zehaztutakoaren arabera, beren gaitasun fisikoa frogatzeko. Baztertuk geldituko dira eskumenen duen fakultatiobako egiten duen txostenean "ez gai" agertzen diren izangaiak.

Aipatu tramiteak eginik, epaimahaiak argitara emanen du oinarrizko prestakuntza ikastaroa onartutako izangaien behin betiko zerrenda. Behin-behinekoz onartutako izangairen batek ez badu eskatzen zaion dokumentazioa aurkezten edo osasun azterketa ginditzen, probak ginditu eta puntuazio handiena duen izangaiarekin ordeztenko da behin betiko zerrendan, bere dokumentazioa bete eta osasun azterketa iragan ondotik.

Udalzainendako oinarrizko prestakuntza ikastaroa egiten da maiatzaren 12ko 113/2005 Foru Dekretuaren arabera, haren bidez onesten baita Nafarroako Segurtasun Eskolaren antolamendu eta funtzionaldura Erregelamendua. Orobak, aplikagarri diren gainerako xedapenei jarraikiko ziae.

Ikastaroa utziz gero, izangaia deialditik baztertuta geldituko da.

Ikastaroak iraun bitartean, izangaiak Iruñeko Udalaren zerbitzuko praktiketako funtzionario izanen dira, eta hilean 1.144,72 euroko soldата gordina jasoko dute, salbu eta Iruñeko Udaleko enplegatu finkoek, horiei 1.3. oinarrian ezarritako aplikatuko baitzaie.

Prestakuntza ikastaroa amaiturik, Nafarroako Administrazio Publikoaren Instituutuak izangaien kalifikazioa igorriko dio epaimahaiari.

6. oinarria.—Proben balorazioa.

6.1. Lehen probako ariketak "gai" edo "ez gai" kalifikatuko dira, 1. eranskinen gutxienekoak ginditu edo ez. Baztertuk geldituko dira edozein ariketan "gai" kalifikazioa eskuratzentz ez duten izangaiak.

6.2. Hautapen aldiko bigarren probako ariketa bakoitzak 0tik 25 puntu bitarte kalifikatuko da. Baztertuta geldituko dira guztira, hau da, 4 ariketen emaitzen batuketa eginda, 50 puntu eskuratzentz ez dutenak, baita ariketaren batean 0 puntu lortzen dutenak ere.

6.3. Hautapen aldiko hirugarren probako ariketa psikoteknikoetan, 0tik 20 puntu bitarteko kalifikazioa emanen zaien izangaien, eta baztertuta geldituko dira 10 puntu eskuratzentz ez dutenak.

6.4. Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroak 0tik 800 puntu bitarteko kalifikazioa izanen du. Baztertuta geldituko da ikastaroko arloren bat ginditzen ez duena, Segurtasun Eskolak ezarri arauen arabera.

6.5. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, hautapen aldiko puntuazioa eta Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroko batuko dira.

7. oinarria.—Epaimahaiaren osaketa, eraketa eta jarduera.

7.1. Kide hauek osatuko dute epaimahaia:

Mahaiburua: Eadio Ezpeleta Iturrealde jauna, Hiritarren Babeseko Alorreko zindegotzi delegatua.

Ordezkoa: Juan José Unzué Gaztelu jauna, Funtzio Publikoaren zindegotzi berezia.

Mahaikidea: Francisco José Fernández Elizalde jauna, Hiritarren Babeseko Alorreko zuzendaria.

Ordezkoa: Francisco Javier Arrobarren Barrena jauna, Iruñeko Udaltzaingoko ofiziala.

Mahaikidea: Simón Santamaría Cebada jauna, Iruñeko Udaltzain-goko burua.

Ordezkoa: Javier Arteta Gorri jauna, Iruñeko Udaltzaingoko ofiziala.

Mahaikidea: langileak ordezkatzen dituzten organoek proposaturiko ordezkari bat.

Ordezkoa: langileak ordezkatzen dituzten organoek proposaturiko ordezkari bat.

Mahaikide idazkaria: Jesús Salinas Andueza jauna, Hiritarren Babeseko Alorreko idazkari teknikoa.

Ordezkoa: Víctor Sarasa Astráin jauna, Hiritarren Babeseko Alorreko legelariarria.

7.2. Epaimahaia, probak hasi baino lehenago eratuko da, mahaiburuak deituta.

7.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

7.4. Epaimahaia dei honetan jasotzen diren oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazo guztiak gehiengoz ebatziko ditu.

Epaimahaia aholkulari adituen lagunza izan dezake, proba batuetan nahiz guztieta lagunzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta horietan bakarrik emanen diote lagunza epaimahaiai.

8. oinarria.—Probak ginditzen dituztenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

8.1. Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroa amaiturik, epaimahaia jendaurrean jarriko du probak ginditu dituztenen zerrenda, osoko puntuazioaren arabera ordenatua, eta ginditu duten izangaien aldeko izendapen proposamena igorriko du.

8.2. Izendapen proposamena banan-banan jakinarazi ondoko hogeita hamar egun naturalen barnean, zerrenda horretako izangaien zin egin beharko dute, edo hitz eman, Nafarroako Foru Araubidea begiratu eta defendatuko dutela, Konstituzioari eta Legeei men eginen dietela eta karguko eginkizunak zintzo beteko dituztela.

8.3. Finkatu epeareen barrenean eta behar adina frogaturiko ezinbertzeoak salbu, zin egin edo hitz ematen ez duena ez da izendatuko.

9. oinarria.—Izendapena eta jabetza hartzea.

9.1. Tokiko Gobernu Batzarrak Iruñeko funtzionario eta udaltzain izendatuko ditu aurreko atalean aipatu proposameneko izangaiak, baldin eta 8.2 oinarrian xedatutako betetzen badute, eta izendapena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko aginduko du.

9.2. Izendatutako izangaiak hilabeteko epean hartu beharko du lanpostuaren jabetza, izendapena jakinarazten denetik aitzina. Aipatu epeareen barrenean izangairen bat karguaz jabetzen ez bada, funtzionario izateko eskubide guztiak galduko diru, behar adina frogaturiko ezinbesteko kasuetan salbu.

10. oinarria.—Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurso hauetakoren bat aurkezten ahalko da, hautara:

a) Berrazterzko errekursoa, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta bihamarunetik aitzina.

b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekursoa paratzen zaion egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta bihamarunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaaren egintzen aurka, gora jotzeko errekursoa paratzen ahalko da, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Iruñean, 2006ko ekainaren 13an.—Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, José Iribas Sánchez de Boado.

1. ERANSKINA

Lehen probako ariketak

1. Urean aritzeko gaitasunari buruzko testa (igeriketa).

Abiatzeko jarrera: zutik, igerilekuaren kanpo-ertzean. Ezin izanen da erabili urpean igeri egiteko betaurrekorik ez beste baliabiderik ere, baina bai igeri egiteko betaurrekoak.

Epiteko modua: ateratzeko seinalea entzun ondoan, izangaien uretan murgildua eta 50 metro igerian egitea, ur azalean nahiz urpean, ahalik eta denbora laburrean. Irteeratik 10 metrora urpean eginen du igeri, bi metro, horretarako propio jarritako tartearen, eta gero kontrako paretaraino segituko du, han buelta eman eta irteerara itzuliko da. Arrestian aipatu tartera iristean berriz ere urpean eginen du igeri bi metrotan, eta paretaraino segituko du gero.

Izangaiak baztertzeko arrazoia:

a) Kortxoetan edo igerilekuaren ertzean pausatu edo haietaz baliatz bultzada hartzea.

b) Igerilekuaren hondoan indar egitea.

c) Kalez aldatzea.

d) Urpean igeri egiteko eremuan burua ur gainera ateratzen badu.

Kanporatuak geldituko dira, halaber, baliorik gabeko bi irteera egiten dituztenak (ateratzeko seinalea eman baino lehen).

Puntuazioa: egindako denborak kontuan hartuz.

—Gizonezkoak: 55" baino gehiago. Kalifikazioa: ez gai. 55" edo gutxiago: gai.

—Emakumezkoak: 58" baino gehiago. Kalifikazioa: ez gai. 58" edo gutxiago: gai.

Denbora neutruko da hamarrenak kontuan hartu gabe.

2. Erresistentzia proba: Course Navette-ren testa.

